


Noaia!!!



Jarraipena izango du
"Hitza Jasoz" ekimenak



Ekainaren 29an greba orokorra,
gehiengo sindikalak deituta

You  youtube.com/noauatb
 twitter.com/noaua

 noaua.com
 facebook.com/noaua



**USURBILGO
LANBIDE
ESKOLA**

943 36 46 00

www.lhusurbil.com

Erdi eta Goi mailako zikloak A eta D Ereduak

Administratiboa



Elektrizitate-elektronika



Fabrikazio mekanikoa



Ura eta energia
Produktio zerbitzu eta manten.



Honako honen bila bazabiltza: Kalitatezko irakaskuntza, lanpostu bat topatzeko erraztasuna, enpresa praktikak, atzerrian praktikak, ekipamendurik berriena.

MATRIKULA ZABALIK uztailaren 7tik 15era



Albistea iruditan!!

Bus-taxiak ordutegia egokituko du uda partean

Uztailean eta abuztuan zerbitzua murriztuko du bus-taxiak. Behemendik eta Udalak duela bi urte, landa eremua herri gunearekin lotzeko martxan jarritako zerbitzuak ordutegia murriztuko du uztailean. Urtean zehar astelehenerik ostiralera bost aldiz osatzen du Kaxkoa, Kalezahar, Aginaga, Txokoalde, Urdaiaga, Santuenea, Zubieta eta Txikiertitik barrena egiten duen ibilbidea.

Uztailean aldiz, goizeko zerbitzuak bakarrik mantenduko ditu: 7:30, 10:30 eta 13:00etakoak. Arratsaldeko beste bi zerbitzuak, hau da, 15:30ean eta 19:00etan ez da bus taxirik izango uztailean.

Abuztu osoan, aldiz, ez da bus-taxi zerbitzurik izango, ezta goizetan ere.



ARRATSALDEKO BI ZERBITZUAK DESAGERTUKO DIRA UZTAILEAN.

Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkarte BORDABERRI 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
943 36 03 21 - elkarte@noaua.com - www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkarte@noaua.com

Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkarte@noaua.com

Publizitatea: Bea Alda, publizitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbieta, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Mainer Makazaga, Aloña Pulido, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai.
Denborapasak: LUMA, O.E.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Lourdes Kamino, Olatz Rezola.

Tirada: 2.800 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Aurkibidea

MINTZALAGUNEKOAK, LESAKAN _____ 5. OR.

KRONISTAK KALEJIRAN _____ 6. OR.

ZERO ZABOR TALDEAREN SORRERA _____ 9. OR.

GIRO EDERRA KALEZARREN _____ 10. OR.

LARUNBATEAN, BTT TXAPELKETA _____ 15. OR.




Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



LUIS ARANALDE

Ekaineko ilunabar batez

Ospatu berria dugu Donostian efemeride garrantzitsu bat: Isidro Uzkudun misiolariaren hilketaren hamargarren urteurrena. Bere aurkezpen apal bat egin nahi nizueke zutabetxo honetan.

1931n jaio zen Pasaian; haurtzaro gogorra bizi izan zuen: Durango, Santander eta Asturiasen zehar ibili zen bere amarekin gerra zibiletik ihesi. 1957an apaiztu zen. Garai hartan Ruanda zen misio deia sumatzen zuten apaizentzat leku egokienetako bat: bertako paisaiaren edertasuna, jendearen harrera gozoa... Misio lanak burutzeko toki aproposa, beraz.

1964an joan zen eta 35 urte pasa zituen bertan. Ruandako gerra zibila hasi baino lehentxeago Muginako San Inazio ikastetxea eraiki zuen; bere "obra" deitzen zion. Izan ere, Isidroren konbentzimendu sakonetako bat zera zen: kulturak bihurtzen duela pertsona libre. Horregatik, gazteen heziketa eta prestakuntza izan zen bere obsesioa eta lan horretan jardun zuen buru belarri.

Bere pertsonalitatea definitzerakoan honela dio Josetxo Canibe bere biografoak: "pertsona nahiko berezia zen, jatorra, ez zen istilu zalea, espiritualtasun xumekoa, alaia; besetik, ez zen batere optimista Ruandari buruz".

Zergatik hil zezaketen, beraz, herriaren ongile aparteko hau? Canibek dio berriro: "babesgabea eta xumeak maite zituen; justiziaz maiteminduta zegoen. Kausa horri eskaini zion bere bizia". Bere postura garbia zuzentasunaren alde, bere konpromisoa zapaldu mota guztian defentsan eta gehiegikeria ororen salaketa izan ziren bere hilketaren arrazoi nagusiak. Guy Béarten abesti ezagunaz gogoratzen naiz: "Le témoin a dit la vérité, il faut être exécuté" (Testiguak egia esan du, exekuta dezagun).



Ruandan ezarritako demokraziak ez zion batere graziaz egiten: inperio ekonomikoek agintzen zuten, interes ekonomikoak babestea zen agintarien kezka nagusia eta ez herriaren ongi izatea. Horregatik, Isidroren homilia haiek, ebanjelioaren filosofiari jarraituz idatziak, molestatu egiten zituen herriko jauntxoak, probokazio huts bihurtu ziren. Horregatik erabaki zuten justiziaren lekuko ausart hau akabatzea. Bere apaiz lagunek eta eliztar batzuek abisatu zioten: "Hire atzetik zabilzak, kontu izan ezak!". Arrisku hori aspaldidanik bereganatuta zeukan. Ez zion beldurrik heriotzari.

Gauza batek nahigabetzen zuen gure misiolaria: Ruandako genozidioa eta geroztik bertan sortutako egoera politiko sozialak. 1994an hutuek (interahamwue deitzen zitzairen, hau da, "egurtu ditzagun elkarrekin") burututako sarraskiek guztiz deseginda utzi zuten herria. Zortziehun bat mila hil zituzten. Inoiz ez zuen gainditu gertakizun negargarri hark eragindako trauma.

Hilketa hau argitu nahi dute Isidroren lagunek. Plataforma bat osatu dute; epaitegi baten aurrean ikusi nahi dituzte apaizaren hiltzaileak; badakite ez dela lan erraza izango, baina, ez dute etsitzen ahalegin horretan. Talde honen buru Juan Carrero Saralegi da. Hau ere mundu honetako gizagaixo eta babesgabeen alde ari da lanean buru belarri. Bere bizia askotan jarri du arriskuan.

Isidro Uzkudunek zintzo bete zuen ebanjelioko honako esaldi hau: "Zorionekoak justiziaren gose eta egarri direnak, haiena da eta zeruetako erreinua". Oskar Romero, San Salvadorko apezpikuak esaten zuen: "Ni hiltzen banaute, Salvadordarren bihotzetan berpiztuko naiz". Ekaineko ilunabar hartan hil zuten Isidro ere ruandarren bihotzetan bizi da betirako.

Luis Aranalde - Aitor Landaluze - Imanol Ubeda - Aritz Gorriti - Nerea Zinkunegi - Maialen Unanue - Ugaitz Agirre - Joxe Piñas - Unai Agirre - Idoia Torregarai

Mintzalagunekoak, Lesaka bisitatzen

Beste herri batzuetan bezala, Usurbilen ere osatu da Mintzalagun taldea. Euskaldunak eta euskaldungaiak elkartzen dira, ikasleek euskara praktikatzeko modua izan dezaten. Duela gutxi, irteera egin zuten. Arantzan izan ziren, Nafarroan. "San Juan Xar haitzuloa bisitatu, mukizapi bat utzi bertako iturrian bustita gaitzak uxatzeko eta Arantza herrian bazkaldu eta gero Lesakara joan ginen bisita egitera". Argazkia Lesakan ateratakoa da, hain zuzen ere.



MINTZALAGUNEKO KIDEAK, LESAKARA EGINDAKO BISITAN.

Greba orokorra deitu dute astearterako

ELA, LAB, ESK, STEE-EILAS, EHNE eta HIRU sindikatuek bat egin dute datorren astearterako deitu den greba deialdiarekin. CCOO ere greba egiteko deia egin du. Funtsean, Espainiako Gobernuak plazaratutako lan erreforma bertan behera uztea eskatu nahi dute, "kasu guztietan langile klasearen eta pentsiodunen laguntzak eta eskubideak murrizten" direlako.

Euskal langileentzat marku berria existitzen dute, "gure eskubideak, sozialak nahiz lanekoak, defendatzeko behar diren politikak Euskal Herrian erabaki daitezten".

"Etorkizuna dago jokoan"

Astearte honetan Hernanin egindako agerraldiaren amaieran, LABeko Elias Minerrek ondoko erreflexioa egin zuen, "Zentzurik ba al du greba egiteak? Bada, ez dugu seguraski Lan Erreforma geraraziko, baina aurrera begira etorriko diren

beste erreforma batzuk baldintzatuko ditugu. Orain erreforma batzuk planteatzen dira, baina gero datozenak askoz okerragoak izango dira. Pentsioak, jubilatzaioaren atzerapenak, alargunen pentsioak..., aurrera begira ere panorama ez da ona. Une honetako erantzun mailak aurrera begira eragina izango du. Horregatik diogu oso garrantzitsua dela erantzun egokia ematea. Azken finean, langilearen etorkizuna da jokoan dagoena. Grebak ezertarako balio ez duela uste duenari zera esan behar zaio: zure lan baldintzen etorkizunerako inbertsioa da".

Eskualde mailako deialdiak

Ekainaren 29ko greba orokorrean lehen deialdia Donostian egingo dute, 11:15ean zehazki. Saguesetik, Antiguatik eta Anoetatik martxa bana aterako da Bulebarrera iristeko. Buruntzaldekoei Anoetako futbol zelaiaren atarira joateko deia egin zaie. Martxa guztiek bat egingo dute



ARGAZKIAN, BURUNTZALDEKO LABEKO ELIAS MINER ETA ELAKO IKER URRUZOLA.

Bulebarrean, eta handik manifestazio erraldoia abiatuko da eguerdiko 12:00etan.

Arratsaldean hitzordu bikoitza iragarrita dago eskualdean. Arratsaldeko 18:00etan manifestazioa irtengo da Lasarte-Oriako txosnagunetik. Ordu berean beste manifestazioa burutuko da Hernanin, Gudari plazatik abiatuta. Grebaren deitzaileek eskualdeko herri-tarrei batera edo bestera joateko deia egin diete.

Ika-mika!

Zubietako kaltetuek Markel Olanori gutun irekia

Gipuzkoako Ahalduen Nagusi zaren Markel Olano: gure buruak aurkezteko, Zubietan Gipuzkoako agintariak erakitzea erabaki duzuen errauste plantak erdi-erdi kaltetutako jendea gara. Zubietan bizi garenak. Horietako batzuk bildu gara gutun ireki hau zuri idazteko. Lehenago, orain dela aste batzuk, zurekin gauzotaz aurrez aurre hitz egiteko zita eskatu genizun, baina erantzun ere egin ez diguzenez, komunikabideen bitartez jakin beharko duzu zuri esateko daukaguna.

1- Oraindik garaiz gaude Gipuzkoan hondakinen kudeaketan atzerabueltarik gabeko urrats arriskutsuak ez emateko eta gaia era burutsuan bideratzeko.

2- Gero eta herritar gehiagok ikusten du hondakinak labe erraldoietan erraustea soluzio txarra dela, kutsakorra, gizakien eta oro har naturaren osasunarentzako pozoigarria, ingurumenarentzako kaltegarria eta dirutan oso garestia. Errauste planta justifikatzen dutenek ere aitortzen dute ahal balitz

hobe litzatekeela hondakinik ez kiskaltzea.

3- Gipuzkoako hiru herritan erakutsi da hondakinen kudeaketarako sistema hobea badela, Atez Ateko Bilketa ardatz duena. Mundu osoan milioika herritarrek dakite hori eta Euskal Herrian ere orain frogatu da. Errauste plantarik gabeko alternatiba badago, beraz, garbia, antolatzen erraza eta askoz merkeagoa.

4- Atez Ateko Bilketa munduan ere, kultura eta maila guztietako herri eta hirietan egiten dute, agintean kolore politiko oso ezberdinetako politikariak —ezkerrekoak bezala eskuinekoak— dauzkaten udaletan. Katalunian bezala Italian baditugu horren froga nabarmenak. Zu buruzagitzan zauzkan Eusko Alderdi Jeltzaleak hitz egin beharko luke atzerriko bazkide horiekin.

5- Ezin duzu baimendu ez Foru Aldunditik, ez horretan agintea daukaten bi alderdietatik eta ez Gipuzkoako diru publiko hornitutako prentsatik Atez Ateko Bilketa egiten duten udalak eta batez ere

haietako herritarrak azken urte honetan ikusi den modu lotsagabean matxakatzea.

6- Usurbilgo Ituna deitu den horretan hainbat alderdi politiko, sindikatu eta eragile sozialek sei urteko moratoria proposatu du Zubietan eraiki nahi den errauste plantarentzako. Elkarriketarako eta soluziorako bidea zabalik dago eta aukera hau ezin dugu alferrik galtzen utzi.

7- Markel Olano jauna: erantzukizun handia daukagu gure Herriarekiko. Gaurko eta biharko herritarren osasuna, ongizatea eta baliabideak dauzkagu jokoan. Historiak denok epaituko gaitu, egin dugunagatik, egin ez dugunagatik eta egitea galarazi dugunagatik. Denon esku dago bide egokiak aukeratu eta okerreko bideak saihestea. Hondakinen arazoa ondo bideratzeko aukera denon esku dago, eta Gipuzkoari dagokionez, asko zure esku, Olano jauna.

Mari Ardanui eta beste 23 sinadura

ATXEGALDE

M^A JESUS URBIETA

Ongi etorri udari



Negu luzea izan dugu aurten, eta ondo aspertuta sentitu gara zenbait egunetan.

Denok bat egiten genuen eguraldiari buruz hitz egiterakoan, baina dagoeneko sartuak gara udan eta esperantza jarriko dugu urtaro honengan.

Urte garai honekin batera dator uda parteko oporraldia. Udarregi ikastola eta musika eskolako ikasleek eskaini dituzte ikasturteko azken saioak, eta hor ibili dira gazteak buru belarri bertan murgilduta. Baina hala ere pozik, geroago atsedena hartzeko tartea izango baitute guztiek.

Kalezarko San Joan festak hasiak dira eta bertara jo behar. Oilasko biltzaileak, dantzak eta San Joan sua dira nagusi, txikiengatik berriz buruhandiak. Gaztetxo batzuk gustora ibiltzen dira haiei segika eta besteak negarrez ikaraturik egoten dira.

Eta azkenean, oporraldi luzea. Ordulariarekin ahaztu eta lo gehiago egiteko aukera paregabea, goizean ze zortea eguzkiak lagunduz gero. Hondartza edo mendi aldera osteratxo bat egin, gustuko kirol jardueraren bat

KALEZAR

INMA BALDA

Sua, argia eta bihotza



Jai zoriontsuak, auzotar maiteok! Dagoeneko sugarrek galdu dute indarra, bukatu dute bere lana: sutara bota den oro erretzea. Baina zer bota dugu suaren besoetara?

Beste behin berritu dugu urteroko usadioa, gure arbasoengandik jasotako ohitura zahar hori. Zer ote du erritu horrek sineskeria guztien gainetik guztiok betetzen duguna? Sua indar boteretsua da. Erraz eskuratu daiteke, azkar indartzen da, bere besoetan harrapatzen duena suntsitzen du...Baina, horien guztien gainetik, ARGIA ematen digu. Argia gure ilunaldiak argitzeko, gure amets gaiztoak uxatzeko, gure itxaropenak pizteko. Eguzkiaren argia ez dago gure eskuetan, bai, ordea, suarena eta horrek boteretsu egiten gaitu.

Sentimendu hori hain da indartsua gure barneko ilunak argitzeko adina dela. Horregatik soilik datorren urtean ere usadioaren hitzordura bilduko garela ziur egon. Bitartean, auzokideok, indartu dezagun beste sua: gure bihotzeko sua! Inguruan ditugunak argitu, berotu eta goxatuko dituen. Bejondeigula, adiskideok!



burutu...

Berehala eta konturatzerako etorriko zaizkigu aurten-ego Santixabelak ere. Ekainaren 30etik uztailaren 4ra arte luzatuko diren jai egunak ailegatu artean, festetako antolatzaileak ekitaldiak prestatzeko lanetan dabilta bizi-bizi. Hala ere, azken urteotan danborrada prestatzen aritu den herritar bat falta zaigu aurten eta berari luzatu nahi diot azken agurra. Txoko honetatik agur Ixiar, betira arte.

SANTUENEA

PAKO AGUDO

Santuen egutegia

2010. urteko lasterketa honetan iritsi gara udaren helmugara. Klaseak amaiturik, kirol alorreko konpetizio gehienei agur esan diegu eta oporrak antolatzen hasi gara (lana duenak noski). Egun luze eta argiz beteak gozatzeko, erlaxatzeko eta ordutegien mendekotasunaz askatzeko egun aproposak dira hauek beraz.

Sukaldean dagoen egutegiari erreparatuz ordea hori guztia egiteko egunak falta zaizkio. Garai hauetan hain "katoliko" bihurtzen gaituzten "santu eta santa" guztiak errotulagailu gorritz egindako borobiltxo baten barruan sartuta daude.

Azken txanpa denetan da gogorrena baina santu guztien azpitik eta jai guztien gainetik egon nahi izanez gero, borobil barruan ez dagoen santu bati laguntza eskatu edota borobil barruan dauden beste batzuei astia utzi behar.

Ez dakit zein izango den neure santu aukeraketa baina bada bat irailaren bukaeran egutegian azaltzen ez dena eta guztiok gorri-gorritz margotuta duguna, Santuenea. Udaz gozatu eta irailera arte.



AGINAGA

AITOR HELETA

Moratoria



Hau irakurtzerakoan sartuta egongo gara bete betean udaran, honez gero itzalita egongo dira San Juan bezperako suak baina ez errauste plantarekin piztu nahi duten sua. Igandean, Donostiako kaleetan milaka gipuzkoarrek moratoria eskatu zuten, Usurbilgo Ituneko sinatzaile (alderdi, sindikatu eta herri eragileak) eta Errausketaren Aurkako Taldeen Koordinakundeak deituta.

Arrazoi askogatik egiten dut bat moratoriaren eskaerarekin. Gipuzkoaren etorkizun ekonomikoa dago jokoan. Baita gure osasuna eta ingurumena ere, Zubietatik hasi eta Gipuzkoa osora hedatuko bailitzateke errauste plantaren eragina. Arduraz jokatzeko uneak dira, gure haurrak, gure baratzak, gure ibaiak, gure osasuna, gure gizarte eredia... Horretaz guztiaz arduratuak gaudenok (eta Agiñan asko garelara ziur nago) aldarrikapen horrekin bat egiten dugu. Askok baitugu jokoan, ez genuke 2014ean Agiña Errauste Plantatik 5 kilometrotara dagoen herria bezala ezagutzerik nahi, ezta gaixotasun eta abarregatik ere.

Horregatik 6 urtetako moratoria behar dugu orain. Manifestaldiko abestiak dioen bezala, ez dugu ilargia eska-



tzen, ez dugu eguzkia eskatzen, denbora tarte txiki bat soilik. Agiñarrok ilargia eta eguzkia zeruan ikusten jarraitu nahi dugu eta Gipuzkoa errauste plantarik gabe, ez Zubietan ez beste inon. Igandean Donostian aukera bat eskatzen zuten haur, guraso eta heldu asko bildu ziren. Eta guztiek irrifar bat zuten ahoan. Ez dugu merezi irrifar hori ezabatuko digun arduradun zentzugabekorik. Gure esku dago, Moratoria orain.

KALEBERRI

ANA URDANGARIN

Eguraldia eta umorea



Beste gairik ez dugu azken aldian, eguraldia gora eta eguraldia behera gabiltza denok moldatu ezinik. Ofizialki udan sartuak gara ekainaren 21az geroztik eta eguzki goxo batekin eman diogu ongi etorria urtaro berriari. Azken hilabete honetan egin duen euri jasa amaigabeak atzean utziko al genituen ba? Inolako zalantzarik gabe eguraldiak gure umorean eragin zuzen zuzena duela pentsatzen dut eta nigan inolako zalantzarik gabe horrela dela baieztatu behar dut. Eguraldi ederrarekin esnatu baino beste ezer pozgarriagorik ez dago niretzat. Sekulako energia ematen dit, gauetan ilargia eta egunez eguzkia, konbinazio ederra ezta?

Udarekin batera auzo eta hirietako festak jo eta su izaten ditugu txoko guztietan eta pena guztiak alde batera uzteko urtaro aproposa izaten da. Ezin aipatu gabe utzi pasa den astebukaeran ospatutako Kalezarko jaiak, giro ederra izan da eta bertan. Larunbatean behintzat gau partean euria lagun izango genuela zirudien baina nahiko ondo portatu zen, ateri eutsi baitzion goizaldera arte. San Joanak, Santixabelak, San Pedroak, San Ferminak, Euskal Herriko txoko eta bazterrak festaz blai izango ditugu aurrerantzean. Lagun artean gozatzeko aukera izan eta ikusiko garelakoan... Ondo ondo pasa guztiok!!!

ZUBIETA

DENIS ELORTZA

Argia

Ez ginen joan Donostiako manifestazioziora ilargia eskatzera, Foru Aldundiari zentzu pixka bat eskatu nahi genion. Besterik ez. Zentzu pixka bat, gure lurra aberastuko dituen lehengaia erre ez dezan; ekonomia-ikuspegi hobea, gipuzkoarrron sosak proiektu errentagarrietara bideratu ditzan; etorkizunarekiko anbizio handiagoa, Gipuzkoak herrialde aurreratuenen rankinean goia jo dezan; koherentzia pixka bat, Markel Olanok horrenbeste aldarrikatzen duen herritarron parte-hartzeari bide eman diezaion; errespetua, gure seme-alaben osasuna arriskuan jar ez dezan. Moratoria eskatu genion, emaitza zoragarriak eman dituen atez atekoari aukera emateko; denbora eskatu genuen erraustegiak zentzurik ez duela demostratzeko.

Eta giro goibela argitu eta eguzkia atera zitzaigun. Hodei beltz eta euri zaparradak uxatu eta ekialdetik atera zaigu eguzkia, Oiartzualdetik eta Hernanitik.

Aurki gaua ere argituko zaigu, izarrak ageri dira Tolosaldean, badator ilargia Debagoienetik. Eta egunsentiaren aldarria Bilboko Euskaldunatik. Argia. Bihotza, burua, eskuak... sentitu, pentsatu, ekin!



Italiatik ekarritako hainbat ondorio (I)

Atez ateko bilketa esperientziak eta hondakinak sortu ahala aplikatzen duten ordainketa sistemak ezagutzen izan zen Italia iparraldean Gipuzkoako ordezkari bat, ekaina hasieran. Bidaiatik bueltan, hona hemen Usurbildik joandako udal ordezkarien lehen balorazioak. Datorrenean, San Marko mankomunitatean ordezkaturik dauden agintarien eta herri eragileen txanda izango da.

INKESTA

1-Italiako esperientzietatik zer ezaguri iruditu zaizkizu deigarrienak?

2-Usurbilen atez atekoa martxan jarri zela urtebete baino gehiago pasa da. Zer alderaketa egin ditzakezu Italiako eta Usurbilgo ereduaren artean?

3-Italian ezagututako esperientzietatik, zer ekarriko zenuke Usurbila?

Lontxo Zubiria, Aralar

1- Batetik, milioika herritar eta mila herritik gora bizi direla han gure sistemaren antzekoarekin. Bestetik, Italian ikusi ditugun herrietan iruditu zait Atez-Atekoaren alde egin duten udal-tan herritarrek bezala politikoak aurrera begira jarrita daudela, hemengo gure herriko hainbat herritar edo politikari bezala.

LONTXO ZUBIRIA, ARALAR

“Gauza bat eduki behar dugu garbi: Zero Zaborrera hurbildu behar dugu”

2- Italiako herri mordoxka bateko esperientziak ezagutu ditugu. Gurekin konparatuta, haietan pixkanaka abiatu ziren, hasieran % 10 bilduz, 70%era iristeko urte batzuk behar izan dituzte. Kontuan hartu behar dugu beraiek izan zirela Atez Ateko sistema honen bultzatzaileetakoak, Italiako lehenengoak. Usurbildarrok emaitza horiek berehala lortu ditugu, baina aitortu behar da gu abiatu garela Kataluniako eta Mallorcako esperientziak ezagututa, eta hauek Italiakoa. Eta seguru Hernanin edo Oiartzunen errezago egin dituztela gauzak guk baino, aitzindaria izateak



ITALIAN IZAN DIREN UDAL ORDEZKARIAK ETA GIZA MUGIMENDUETAKO KIDEAK.

prezio hori dauka. Beste aldetik, aipatuko nuke Dogliani herria: 6.000 biztanleko herria izaki, behin %76ko birziklapenera iritsita zaila ikusten dute bilketa-rekin hori gainditzea eta horregatik orain prebentzioari ekin diote. Prebentzio horren oinarria zabor gutxiago sortzea izango da. Horretan ari dira buru belarri.

3- Gure hurrengo erronka “Pago por generación” delakoan pausoak ematea izan behar duela dirudi, bidaia honetan asko komentatu dugu. Alegia, errefusa gehien sortzen duenak gehiago ordaindu dezala eta gutxien sortzen duenak gutxiago. Atez Atekoaren barruan hobekuntza hori lortzeko sistema bat baino gehiago badira, Katalunian bertan ere bai, eta Italian batzuk ikusi genituen. Denbora daukagu hori sakonago aztertzeko. Baina gauza bat eduki behar dugu oso garbi: Zero Zaborrera hurbildu behar dugu, eta horretarako errefusa ahalik eta gutxien sortzea derrigorrezkoa da.

Amaya Goyaran, PSE-EE

1- Italiatik ikusitakotik esan daiteke oso garrantzitsua dela hondakin lege bat izatea, alor honetan eskumena duten erakundeek babes legala eduki eta zer egin argi izan dezaten. Ikusi dugu baita, Usurbilen, Oiartzunen eta Hernanin atez atekoa jarria dagoen moduan han ia ez dutela erabiltzen, udalerrri oso txikietan soilik. Etxez etxeko edo kalez kaleko bilketa gehiago bultzatzen dute, organikoa biltzeko ontziak ontzi komunitario batean edo eraikuntza atarian gainerako edukiontzietan batera husten baitituzte.

2- Usurbilgo ereduaren zorrotzagoa da, herritarrez herritar ebaluatzen baita. Han hondakinak ontzi komunitarioetan uzten dituzte, anonimoagoa da. Baina herritarrek ezin dute nahi dutena egin, gaikako bilketa gaizki egiten badute, hondakin zatiak ez dizkiete biltzen eta ondo nola egin azaltzen zaie. Jarrera ez badute aldatzen, santzionatzen zaie.

AMAYA GOYARAN, PSE-EE

“Alderdi politiko guztien arteko adostasuna ekarriko nuke Italiatik hona”

3- Alde batetik, haien 2003ko legea ez nuke ekarriko, une horretan dagoen sistemarik onenarekin ahalik eta gehien birziklatzea derrigorretan duen gure lege propioa egin ahal izatea baizik. Tasa eta tarifaren artean jarria duten desberdintasuna, hondakin gutxiago sortzen duenak gutxiago ordaintzen duela dioena ere ekarriko nuke. Eta oso garrantzitsua dena, hona alderdi politiko guztien arteko adostasuna ekarriko nuke Italiatik, legeak agindu moduan ahalik eta birziklatze maila handiena bultzatzeko. Ingurumen gaietako Diputatu batek Italian esan zigun moduan, hondakinak ez dira ez eskuinekoenak ezta ezkerrekoenak ere, zentrokoak baizik... birziklatze zentrokoak. Ia hondakin gerra politikoa albo batera uzten dugun eta buruarekin birziklatzen dugun, metodo eraginkorrenetara egozkituta.

Koloretsua, moratoriaren aldeko manifestazioa

Sei urteko moratoria eskaera ozen aldarrikatu zen joan den ekainaren 20an, Usurbilgo Itunak eta Errausketaren Aurkako Koordinakundeak Donostian deitu zuten manifestazioan.

Etorkizuna diren hainbat herritarren seme-alabek ireki zuten Bulebarretik abiatu zen manifestazioa, Porrotx eta Petra pertsonaiekin batera. Atzetik bidean aurrera egin ahala, geroz eta herritar gehiago bildu zituen manifestaldia zetorren, osasunaren alde, eta moratoria eskatuz. Foru Aldundiko egoitza parera ailegatu zirenean, manifestaldia gelditu zen. Organikoa biltzeko bi ontzi marroi eta hazitako barazki bat zuen lurra utzi zuten, Aldundiko atarian.

Epe horretan, atez atekoa bultzatu

Manifestazio amaieran, Maria Luisa Sanchezek eta Juanjo Olaizolak irakurri zuten adierazpenean, herritarren osasuna arriskuan jartzeko eskubiderik inork ez duela gogorazi zuten. Errauste plantaren sei urteko moratoria eskatu zuten, tarte horretan, atez ateko bilketaren bidez hondakinen kudeaketa garbi, eraginkor eta osasuntsua burutu daitekeela erakutsi ahal izateko. Gehiegikeriatzat jo zuten Foru Aldunditik 500 milioi euro errauste plantara bideratzea.



JENDETSUA ETA ANITZA IZAN ZEN, IGANDEKO MANIFESTALDIKO PARTE HARTZEA.

Gipuzkoa Zero Zabor gizarte mugimendua osatu da

Errauste plantaren aurkako plataformek edota atez ateko bilketaren inguruan herriz herri sortu diren taldeek gizarte mugimendu berria sortu dute; Gipuzkoa Zero Zabor. Joan den ekainaren 15ean aurkeztu zuten Donostiako Gipuzkoa plazan, Foru Aldundiko egoitzaren parean. Argi adierazi zuten zein den haien nahia, eta betearazi nahi duten herritarren eskubidea: "Gipuzkoa garbi eta osasuntsu batean bizi nahi dugu, ez besterik". Zaborrik gabeko beste Gipuzkoa bat eraiki nahi dute.



ATEZ ATEKO BILKETA, BIRZIKLATZEA ETA KONPOSTAJEA SUSTATU NAHI DUTE.

“Hitzak jasoz” proiektuak jarraipena izango du 90eko hamarkadan egin ziren grabazioak Ahotsak egitaspora batu dira

1996 eta 1998 urteen artean, hainbat usurbildarren ahotsak eta testigantzak jaso ziren. Helburua, euren euskara moldea errejistratzea. Usurbilgo Hitza Jasoz elkarteak egin zituen grabaketok eta, gerora, lan hau udalaren esku utzi zen. Lanak hizkuntzaren ikuspuntutik duen balioa aintzakotzat hartuta, Usurbilgo Udalak egokia ikusi du orain arte egindako grabazioak Ahotsak proiektura bideratzea. Eider Etxeberria izango da lan hau bideratuko duena.

NOAUA! Ahotsak proiektuaren bitartez, Badihardugu elkarteak bere gain hartu du Hitza jasoz ekimena. Badihardugu elkartearen berri emango diguzu?

Eider Etxeberria. Badihardugu Deba Ibarreko Euskara Elkarte da. 2000. urtean sortu zen, Deba eskualdean antzerako lanetan eta helburu bertsekin lanean ari ziren pertsonen elkarlaneari aritzeko nahia eta beharra ikusten zutelako. Badiharduguren helburua da

GURE AURREKOEN EUSKARA

“Hitza Jasoz-en bidez jasotako grabazioak balio etnolinguistiko handikoak dira”

azpieuskalkiak aztertzea, jorratzea eta herritarren artean zabaltzea, eta horrela, bide batez, euskara bera aberastea eta indartzea.

Lan-ildo nagusiak ahozkoatasuna lantzea eta euskararen erabilera ziurtatzea dira, eta horren harira, hainbat ekimen jarri dira martxan: besteak beste, ahotsak.com, hainbat libururen argitalpena, Deba Ibarreko aditz-taulen bilduma, euskalkien liburutegia, euskalkia lantzeko karta-jokoa, Berbeta Berua eta gazteak (lagunarteko hizketa osatzeko ekime-



GURE NAGUSIEN ONDARE LINGUISTIKOA BILTZEKO OSATU ZEN HITZA JASOZ ELKARTEA. ORAIN HAREN LANAREN JARRAIPENA EGINGO DU AHOTSAK PROIEKTUAK.

na), edo Teknologia berriak (Internet eta teknologia berriek euskararen alde egiteko proiektua).

N. Nolatan erreparatu duzue Usurbilgo ekimen honetan?

E. E. Ahotsak-en Usurbilgo grabazio gutxi geneuzkan; eta bertako biztanle

gehienak euskaraz bizi diren euskaldunak izanda, herri egokia iruditu zitzaigun Usurbil gure proiektua aurkeztu eta proposamena egiteko. Udalak eman zigun orduan Hitza Jasoz proiektuaren berri, eta lan horren balio linguistiko eta etnolinguistiko aintzat hartuta, gure proiektura elkartzeko interesa agertu zuten.

“Aiton-amonen istorioak entzunda, hobeto ulertzen da oraina”

NOAUA! Usurbildarra zara, Hitza jasoz ekimenean parte hartu zuten askok bezalaxe. Aurretik ezagutzen zenuen egitasmo hau? Zuretzat berezia izango da lan honetan aritzea, ezta?

Eider Etxeberria. Orain arte ez nuen ezagutzen egitasmoa, 11-12 urte neuzkan eta hura egin zenean. Baina poza hartu dut ikustean garai haietan dagoeneko bazegoela Usurbilen gure nagusien ondarea jasotzeko kontzientzia. Orain ilusioarekin ari naiz prestatzen lan honetarako, aiton-amonen istorioak



90EKO HAMARKADAN, BESTEAK BESTE FERMIN ROTETA ETA TERESA ALTUNAREN HITZAK BILDU ZIREN.

entzunda hobeto ulertzen baita oraina, eta are gehiago norbere jaioterriko kontuak izanda.

Eider Etxeberria, Ahotsak-eko kidea

“Grabazio berriak egingo ditugu”

NOAUA. Hitza jasoz proiektua gelditi egon da azken urteotan. Zertan oinarrituko da zuen lana?

Eider Etxeberria. Batetik, Hitza Jasoz proiektuan bere garaian bildutako materiala landuko dugu: grabazioak kodifikatuko ditugu (minutuz minutu laburtuko ditugu 2-4 minutuko "pasarteak" sortuz); pasarte horietako batzuk transkribatuko ditugu; eta azkenik, pasarterik onenak herritarren esku jarriko ditugu online, Usurbilgo biztanle guztientzat ikusgai. Bestetik, grabazio berriak egingo ditugu, eta haiek ere lehenago aipatutako metodologia berarekin landuko eta hedatuko ditugu.

N. Teknologia berriak ere erabiliko dituzue, oker ulertu ez badugu behintzat, Interneten isla izango du Hitza jasoz ekimenak, ezta?

E. E. Bai, hori da. Interneten gure webgunean (ahotsak.com) eskegiko ditugu pasarterik onenak. Hitza Jasoz proiektuak berak, gainera, atal edo orrialde berezia izango du bertan. Eta horrez gain, Usurbilgo Udalak ere beste bide batzuk landuko ditu materialaren hedapenerako.

EIDER ETXEBERRIA

“Bateren batek etxean grabazio zaharrak baditu, gustura sartuko ditugu gure proiektuaren barruan”

N. Esateko besterik?

E. E. Askok eskertzen dugu herritarrek proiektuan parte hartzea, dela elkarrizketarako hizlariak topatzen laguntzen, dela elkarrizketak berak egiten laguntzen.

Eta bateren batek etxean grabazio zaharrak baditu eta haiek konpartitzeko gogoak badu, gustura sartuko ditugu gure proiektuaren barruan. Gurekin harremanetan jarri nahi izanez gero,



ZARAUTZEN BIZI DA EGUN, BAINA IZATEZ USURBILDARRA DA EIDER ETXEBERRIA, AHOTSAK PROIEKTUKO KIDEA.

ahotsak.com webgunearen bidez egin daiteke, edo bestela, Udaletxeko euskara

sailera joanda. Ea, ba, lan polita egiten dugun denon artean!

Duela 15 urte egindako grabazioak digitalizatu egingo dira

1996 eta 1998 bitartean, Maria Muguruza Arozena, Matilde Urkia, Joxe M. Urbistondo Zendoia, Joxe M. Lizaso Peñagarikano, Jorge Aizpurua Zeberio, Eustakio Alkorta, Antonio Pello Aranburu eta Patxi Illarramendi, Martin Aliri, Hilari Aizpurua, Felix Bereziartua eta M. Luisa San Sebastian, Fermin Roteta eta Teresa Altuna, Aginagako angulazaleak, Joxe Beraetxe, Elias Sagardia eta Joxe Juan Bereziartuaren ahots eta testigantzak jaso ziren. Hitza Jasoz elkarteak egin zituen grabaketok eta, gerora, lan hau udalaren esku utzi zen. Koro Tapiak, grabazio batzuk euskara batuaz jarri zituen eta hauen transkribaketa fonetikoa egin zuen.

Lanak hizkuntzaren ikuspuntutik eta alderdi etnolinguistikotik duen balioa aintzakotzat hartuta, Usurbilgo Udalak egokia ikusi du orain arte egindakoa

Badihardugu elkarteak duen Ahotsak proiektura ekartzea eta grabazio berriak egitea. Hitza Jasoz taldekoak bat datoz udalaren asmoekin.

Asmo horri loturik, hitzarmena sinatu berri dute Badihardugu elkarteak eta Usurbilgo Udalak Hitza Jasoz proiektua garatzeko.

Hitzarmen honen bidez, Badihardugu elkarteak, 2010 eta 2011 urteetan honakoa egingo du:

-Orain arteko 16 elkarrizketa jaso, digitalizatu eta datu-basean txertatu.

-10 elkarrizketa berri egin bidez eta horiek kodifikatu.

-16 zinta zaharrak kodifikatu.

-75 pasarte transkribatu 2010ean eta 150 2011n.

-Interneteko pasarteak edizioa: 2010ean 30 audio-pasarte eta 40 bideo-pasarte eta 2011n 40 audio-pasarte eta 40 bideo-pasarte.

Giro ederra Kalezarren

Auzotarren arteko desafio probekin ekin zioten joan den ekainaren 18an Kalezarko San Joan jaiei. Bi taldetan banatutako Kalezarko bizilagunek, lasterka eta lokotxak zein sagarrak biltzen parekorik ez zutela erakutsi zuten. Plazaren bueltan lagun dezentte hurbildu zen probak ikustera, tartean gaztetxoak ziren, lehenago buruhandien aurretik hara eta hona korrika aritu zirenak. Modu horretan, asteburu bete ekitaldiri hasiera eman zitzaion. Larunbatean oilasko biltzaileen eguna ospatu zuten Kalezarren, eta igandean haurrena.



AUZOTARREN ARTEKO JOLASETAN HAUR, GAZTE ETA HELDUAK ARITU ZIREN ELKARREKIN, UMORE ONEAN.

San Juan jaiak, azken txanpan

EKAINAK 23 ASTEAZKENA SAN JOAN BEZPERA

15:00 San Joan eskearen irteera.

22:00 San Joan Sua.

Ondoren, eskearen jarraipena.



EKAINAK 24 OSTEKUNA SAN JOAN EGUNA

11:00 Meza Nagusia.

Ondoren, toka.

13:00 Gorritiren Showa
(XXV. urteurrena).

18:00 Buruhandiak.

19:00 Soka dantza.

Ondoren, sardina eta sagardo dastaketa Saizar sagardotegiaren eskutik, jaiei amaiera emanaz.

Oharra: jai batzordea ez da jaietan gerta daitezkeen istripu edo ezbeharrez arduratuko.

Begiraleak behar dira saharar haurren udalekuetan

Uda partean, urtero haur asko etortzen dira saharar errefuxiatu kanpamenduetatik. Haur hauek bi hilabetez datoz gurera, mediku ikuskapenak egiteaz gain, esperimentzia berri bat bizitzera eta, nola ez, ondo pasatzera. Udalekuak uztailearen 8an hasiko dira Brinkolako aterpetxean, baina antolatzaileak begirale premian dira. Lana boluntarioa da baina esperimentzia ahaztezina dela diote antzekoetan ibili direnek.

Udalekuaren datuak

- Udalekuaren hizkuntza: gaztelera.
- Uztailearen 8tik irailaren 9a bitartean.
- Brinkolako aterpetxean (Gipuzkoa).

Begiralearen profila

- Gutxienezko adina 18 urte (gehienekoa mugarik gabe).
- Dinamikoa izatea, haurrekin lan egitea gustatzea, arduratsua.
- Bestelakoak: egitasmoa hasi aurretiko topaketara joatea, saharar herriarekin erlazio zuzena izatea eta saharar herriaren gatzak ezagutzea baloratuko da.
- Lana boluntarioa da.

Ostatua eta janariaren truke

Udaleku honetan zure disponibilitatearen arabera lan egin dezakezu. Asteburu



UDALEKUA BRINKOLAKO
ATERPETXEAN IZANGO DA.

bat, lau egun, bi aste... Animatzen bazara, ostatua eta janaria ez dituzu ordaindu beharrik izango.

Nola eman izena

Bildu zure datu pertsonalak eta curriculum-a eta bidali helbide elektronikohonetara:

maiatzak20sahara@gmail.com

Informazio gehiago:

E-posta: maiatzak20sahara@gmail.com

Telefonoa: 673 707 829

facebook.com/maiatzak20

Kirol arloko laguntzak eskatzeko garaia da

Kirol arloko diru-laguntzak eskatzeko epea zabalik dago uztailearen 1era arte. Eskaerak Oiarde Kiroldegian aurkeztu behar dira. Deialdia, Usurbilen kirol ekimenak bultzatzen dituzten talde edo elkartei zuzendua dago. Usurbilen egoitza duten elkarteek diru-laguntzak jasotzeko elkartearen udal erregistroan inskribatuta egon behar dute. Usurbilgoak ez diren entitateek baina herrian bertan kirol ekimenen bat bultzatzen dutenek ere eska ditzakete diru-laguntzak, dagokien elkarte erregistroan inskribatuta egon eta udalerrirako interesgarriak diren ekintzak bideratzen badituzte.



UZTAILAREN 1EAN
AMAITUKO DA DIRULAGUNTZA
ESKATZEKO AUKERA.

Larunbat honetan hasiko dira Ziortzako kanpaldiaren muntaia egiten

Uztailean, txanda ezberdinetan, 70 bat gazte izango dira Peñaloscintoseko (Errioxa) kanpaldian. Ziortza Gazte Elkartek, urtero legez, kanpaldiaren muntaia egiteko laguntza eskatu die gurasoei edo lagundu nahi duten guztiei.

Ziortza Gazte Elkarteko kideek esan dutenez, "muntaketa guk bakarrik egitea ezinezkoa da, ezin baitugu denara iritsi. Orduan, eta bereziki gurasoak,

animatu zaitezte Peñaloscintos ezagutuaz, lagun artean egun atsegin bat pasatzera, giro ederrean, paraje ederrean, lan apur bat eginez, eta horrela denon artean egiten badugu askoz ere xamurragoa izango da".

Larunbat hau izan da Ziortza Gazte Elkartekoek muntaketarako aukeratu duten eguna.

Animatzen direnek telefono zenbaki honetara deitu behar dute (620 800 099, Maider).

Atez ateko zalantzak argitzen


Zer eraman dezaket Pikaolara?

Elektrogailuak, aparatu elektromagnetikoak, obra hondakinak, inausketa, beira laua, egurra, txatarra... Baina zerbiztu hau herritarrentzat da soilik, ez enpresari edo autonomoentzat

Bidali zure galdera helbide honetara:
atezate@usurbil.net
Galde-erantzun guztiak webgunean:
www.usurbil.net/atezate



Hitz gezidunak !!

		Jaidurak	▼	Txikiak	▼	Asca	▼	Betetzerahartua	▼	Berchala
		IRUDIAN		Txistu, listu, tu		Osmioa		Noka, nituen		
		▶		▼		▼		▼		▼
		Izan	▶							
		Italiako hiria								
Lasaitasuna	▼	Karta joko	▶	▼		Isurkari organiko	▶			
Zerbitzaria, moeroia		Gezurak				Toka, lieke				
▶		▼			Enarak	▶	▼			
					Gibela					
Sortua	▶			▼			Jardun	▶		
Une oro							Seikoa			
▶					Gailua	▶	▼			Zein?
					Nafarroako herria					
Hark lezake, guk ...	▶			▼				Zinka	▶	▼
Garra								Kontso, bustia		
▶			Bizkaiko herria	▶				▼		
			Kontso-nantea							
Ekintza	▶		▼			Katu ar	▶			

* IRUDIAN: Usurbilgo kultur ekipamendu berriaren izena

Soluzioa: 17. orrialdean.

Zumarten ere amaitu da ikasturtea

Ikasleen ikasturte amaierako kontzertuekin borobildu du Zumarte musika eskolak, 2009-10 denboraldia eta bere mende laurdeneko ibilbidea. Joan den ekainaren 15etik 17ra, Zumarte Txikik eta Zumarte abesbatzek, Urrezko Muskerrak, Biolin-Flauta, Triki-Pandero Taldea eta saxo, gitarra, Piano, Txistu-Piano, Folk zein Helduen Talde Instrumentalek Sutegiko auditorioan jo zuten. Baita irudiko Musika Txokoko ikasleek ere, hauek Udarregi ikastolan eskaini zuten emanaldia. Gaztetxo senitarteko eta lagunek aretoa bete zuten. Guztiak oporretara doaz orain.



IRUDIAN, MUSIKA TXOKOKO IKASLEAK IKASTOLAN ESKAINITAKO EMANALDIAN.

Aginagako ludoteka, egun hauetan irekita

Eskolara joateko garaia bukatu da. Oporretan dira gazteak. Baina hala ere, Aginagako gaztetxoek ludotekara joateko aukera dute egun hauetan, Antxomolantxa elkartearen ekimenez. Ekainaren 23, 24, 25, 28, 29 eta 30ean, ludoteka irekita izango da, goizeko ordutegiarekin, 10:00etatik 13:30era. Begirale bat egongo da egun hauetan, ludotekaz arduratzen.

Uztailean eta abuztuan, ludoteka itxita egongo da.

Igande honetan BTT lasterketa, Txirrindulari Eskolak antolatuta



Igande honetan, BTT lasterketa Igingo da Lasarte-Orian, Buruntzazpi Txirrindulari Eskolak antolatuta. Gaztetxoei zuzendutako

lasterketa hau Urbarten jokatu da, Lasarteko Atsobakar auzoan. Ziklo kross pista baliatuko dute eta goizeko 10:30ean hasiko da.

Zubietako Errebote Taldekoak ez dira finalera iritsi gutxigatik

Pasa den igandean, Hiriburun (Lapurdi) jokatzen aritu ziren Zubietako errebote taldekoak, Donapaleu taldearen aurkako norgehiagokan. Gaizki hasi ziren zubietarrak baina gero buelta eman zioten markagailuari. Mikel Bengoetxeak aditzera eman digunez, "pena bat izan da, baino ezin izan dugu finalerako txartela lortu juxtu-juxtuan. Partidan beti egon gara atzetik, 2-10 ere joan gara

galtzen. Gero partidari buelta eman diogu baina azkenean galtzaile suertatu gara". Azken emaitza 12-13 izan zen Donapaleuren alde.

Zubietako ordezkariak hauek izan ziren: Joseba Aizpurua, Josu Aizpurua, Jon Huizi, Kerman Errekondo eta Imanol Aizpurua.

Finala uztailaren 14ean jokatu da. Donapaleu eta Senpereko taldeak ari-tuko dira aurrez aurre.



ZUBIETAKO TALDEA TXUKUN ARITU ZEN PASA DEN IGANDEAN (IRUDIA, ARTXIBOKOA).

Usurbilgo Pilota

Txapelketa, finalerdietan

Usurbilgo Pilota Txapelketa finalerdietara iritsi da. Asteburu honetan jokatu dira final aurreko partidak, jubenilen zein nagusien mailan. Finalak, ordea, uztailaren 3an jokatu dira.

EKAINAK 26 LARUNBATA

Usurbilen, goizeko 11:00etan
FINAL-ERDIAK

Jubenilak

Oronoz-Labaka - Juanenea-Iraola
(Bidegoien) (Baztan)

Nagusiak

Lizaso-Erreka- Apezetxea-K. Galarraga
(Billabona) (Bidegoien)

EKAINAK 27 IGANDEA

Usurbilen, goizeko 11:00etan
FINAL-ERDIAK

Jubenilak

Barandiaran-Santxez- Santxo-Aizpitarte
(Astigarraga) (Usurbil)

Nagusiak

Arribillaga-Loyola - Urmeneta-Iriarte
(Elgoibar) (Añorga)

Igandean, Pala

Txapelketako finalerdiak

Pala Txapelketa azken txanpara heldu da. Asteburu honetan jokatu dira finalerdiak eta datorren astean argituko da zein bikote izango den aurtengo txapelketaren irabazlea.

EKAINAK 27 IGANDEA FINALERDIAK

19:00etan Usurbilgo frontoian

B1 - D2ko irabazlea

Igor Alkorta-Josu Errekondo

A2 - E1 irabazlea

Xabier Errasti-Manuel Galarraga

B2 - D1eko irabazlea

Mikel Ibarreta-Jon Olaizola

A1 - E2ko irabazlea

Leko-Haritz Harreguy

EKAINAREN 30EAN, FINALA

Finala ekainaren 30ean asteazkena jokatu da, arratsaldeko 19:00etan hasita.

Agenda !

Ekainak 24 osteguna

- Jaiak Kalezarren
(ikus 12. orrialdea).

Ekainak 26 larunbata

- "Hiru desioak", antzerki saioa
19:30ean Sutegin.

Ekainak 29 asteartea

Usurbilgo Gazte Ekimenaren bilera,
19:00etan AEK-ko bulegoan.

Goardiako farmaziak

Ekainak 24, osteguna

Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Ekainak 25, ostirala

Gil, Nagusia 24 Lasarte

Ekainak 26, larunbata

Iturralde, Bordaberri 1 Usurbil
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Ekainak 27, igandea

Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Ekainak 28, astelehena

Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Ekainak 29, asteartea

Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Ekainak 30, asteazkena

Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Uztailak 1, osteguna

De Miguel, Nagusia32 Lasarte

Uztailak 2, ostirala

Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Uztailak 3, larunbata

Oa, Kontseju Zarra 11 Usurbil
Gil, Nagusia 24 Lasarte

Uztailak 4, igandea

Gil, Nagusia 24 Lasarte

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ

Chucla farmazia (22:00-09:00),
Kardaberaz, 48, Hernani (943 551 793)
*Usurbilen, soilik eguerdira arte

Datorren astean,

Gazte Ekimenak deitutako bilera

Datorren hastean hasiko dira Santixabelak. Honen harira, Gazte Ekimenekoek bi ohar hauek helarazi nahi dituzte.

Gazte Ekimeneko txosnetan lan egiteko prest dagoenarentzat, "ekainaren 29an asteartea, bilera egingo dugu AEK euskaltegiko lokalean, arratsaldeko 19:00etan".

Eta bestetik, oilasko biltzaileen eguneko bazkarirako txartelak laster herriko tabernetan egongo direla salgai.



Oilasko biltzaileen bazkarirako

txartelak tabernetan

egongo dira salgai.

Usurbil Cup txapelketako finalak

Usurbil FT taldekoek antolatutako Usurbil Cup txapelketa bukatzar da. Larunbat honetan, ekainak 26 final saioak jokatu dira. Minibenjamin, benjamin, alebin, infantil eta kadete maila dagozkien bost partida jokatu dira guztira, arratsaldeko 15:30ean frontoian hasita. Azken partida 20:30ak aldera amaituko da eta ondoren, talde guztien artean sariak banatuko dituzte.

Antolatzaileek txapelketa honetan neurritz jokatea eskatzen dute: "Lasai hartu behar dira partidak, animatzea ondo dago

baina giro *kargatuegia* ez sortzen saiatu behar dugu, umeak lasai utzi behar dira goza dezaten eta batez ere, gertatzen dena gertatzen dela (batzuk irabazi besteek galdu), umeen ondoan egon behar dela, triste dagoena laguntzeko eta irabazi duenak era jatorrean ospa dezan. Gainera, azpimarratu nahi dugu zelaia errespetatu behar dela, ezin duela uneoro norbaitek zelaia zapaldu edo jolasten ari direnei enbarazu egiten egon". Zorrotzak izango dira kontu hauekin, beharrezkotzat jotzen badute neurketak eten behar badituzte ere.

"Hiru desioak",

antzezlan Sutegin

Noizbait izan al duzu desio baten gogoak?, iradokizun horrekin datoz Txerriki Antzerki Taldekoak. Larunbat honetan, "Hiru desioak" izeneko antzezlan eskainiko dute Sutegin, arratsaldeko 19:00etan. Joxe Torregarai, Kattalin Arzallus, Ana Arostegi eta Maitere Alkorta izango dira antzezleak.

Soluzioa!

	J	T	B	B	
	P	O	T	X	O
	E	X	I	S	T
S	T	R	U	K	E
J	O	P	U	A	E
S	O	R	K	A	R
B	E	T	I	T	R
G	E	N	E	Z	A
S	U	A	L	E	K
A	K	T	O	A	K

Soluzioa: Potxoenka

Kale nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13

Okindegia & Gozetegia

LABE-GOXO

ALIPROX

Kale Nagusia 10
☎ 943 361 182
USURBIL

JUANTXO
BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8
943 370 008

Otar-Goxo
ESTILO GATIAK

Zubiaurrenea, nº2
☎ 943 36 55 81
20170 Usurbil

ETXEBIZITZA

- Bikote batek pisu bat alokairuan hartuko luke Usurbilen. Tf: 943 573 857 edo 603 131 645.
- Orioko Alde Zaharrean, etxebizitza bat salgai. Bi logela, bainu gela, sukalde-sala. 661 679 691.
- Pisu bat alokatuko nuke, 3 logelakoa eta amueblatua. 646 086 109.
- Gizonezko langile edo jubilatu batentzat gela bat alokatzen da Usurbilgo kaxkoan prezio eta baldintza onetan. 687348223 edo 943364310.
- Logela bat alokatuko nuke edo konpartitzeko etxe batean sartuko nintzateke alokairuan. Nire telefono zenbakia: 648 005 159.
- Apartamentu edo logela bat alokatuko genukeen bikote bat gara. 677866495
- 60 metro karratuko pisu salgai kaxkoan. 2 gela, sala, sukalde, komuna eta trasteroa. Dena berrituta eta amueblatuta. Igogailua, hiru balkoi eta oso eguzkitua. Tf: 686 969 112.
- Etxebizitza alokatzen da, Oropesa de Mar (Castelló) herrian. 655 731 915.
- Lau logeletako etxebizitza salgai Atxegalden. Ganbara ere badu. Aukera dago etxe azpian garajea erosteko. 699720940
- Salgai dago Usurbilen etxe familiar polit bat, kiroldegi ondoan. Tel. 646.041915 Amaia.
- Kale Nagusia 10, lokal komertziala salgai, 133 m2. 943 364 637 / 943 365 299
- Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. 606 457 112.
- Neska eskaldunak pisu bat hartuko luke errentan Usurbilen. Interesatuak deitu 647 486 232.
- Landetxe bat saltzen da Alfaron (Errioxan). Astebukaerak eta oporraldietarako egokia. Terreno eta pistinarekin. Herritik 1,2 kilometrotara. 2 logela, egongela tximenearekin, sukalde, komuna eta portxea. 675702428 (gauetan).
- Etxe bat konpartitzeko pertsona baten bila nabil. Deitu 20:00etatik aurrera 661568471.
- Gela bat alokairuan pertsona serio batentzat, pisu berri batean. 300 euro, gastuak aparte. Usurbil inguruan. 609 901 734 edo 943 575 788.
- Muna Lurra kalea 16, 3.C salgai. Eguzkitua eta berrituta. Interesatuak deitu: 637225620.
- Pisu bila nabil Usurbilen. Alokairuan nahi nuke. 664 885 737.
- 95 metro karratuko etxebizitza salgai Kaxkoan. Erreforma behar du baina aldatetako egiteko aukera asko. 638279184.
- Orion babes ofizialeko etxe bat daukat eta Usurbilen babes ofizialeko etxeren bat daukan norbaitekin aldatuko nuke. Interesatuak deitu 663600020.
- 230 metro karratuko etxea salgai, 2 solairuko bordarekin. 2800 metro karratuko lursaillean. Kalezarreko eremu urbanoan. 665720913.
- Baserri bat alokatu nahi nuke, Zubietan, Aginagan edo Usurbilen. 630 274 906.
- Usurbilen etxebizitza salgai. 3 logela, sala, komuna, sukalde, bi balkoi, igogailua, ganbara. Kaxkoan. 607 924 407.
- Santuena 26an 60 metro karratuko etxea daukagu salgai. 2 gela, sukalde handia, etxeak kanpokalde- ra ematen du, gasa eta kalefazioa ditu. 200.000. 666539284.
- Etxe berria salgai kaxkoan. 3 logela, bainua, komuna, ... eta trasteroarekin. 685731792.
- Logela bat alokatu nahi da etxe konpartitu batean. 671800275.
- Lasarren apartamentu bat salgai, egoera onean. Erdigunean. Toki lasaia eta berritu berria. Bikote batentzat egokia. 657708866

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- 2006ko Ford Transit Td/240s Kombi6 salgai. Ioseba 669 074 698.

- Taxi lizentzia bat salgai Usurbilen. Interesatuak Gipuzkoako Taxi Elkartearen eskura dezake informazio gehiago eta eginbeharrekoak 943 46 54 98.
- Txaramunto auzoan garaje itxi bat alokatzen da 80 eurotan. Interesatuak deitu: 667715075.
- Zazpi plaza dituen Kia Carnival bat saltzen dugu. 2004 urtekoa da eta 118.000 km dauzka, ondo zaindua, beti garajeon egondakoa. 669353942.
- Bizkarre kalean garaje itxi bat daukagu salgai. Altura bikoitza du eta altilo bat egina dauka. Interesatuak deitu 943576957 telefonora.
- Aprilia Chester R-125 motorra daukagu salgai. Egoera onean eta prezio interesgarria. 661618970
- Karabana bat salgai. Modelo zaharra da baina egoera oso onean dago. Prezio interesgarria. 646514494
- Mitsubishi L200 bat salgai. SS-AZ eta egoera onean. 646514494
- Garaje bat alokatzen da Bizkarre kalean. Neurriak 2,5m x 5m eta 2,1 metrotako altuera. 943361265.
- 50cc-ko motorra daukat salgai. Aukera paregabea. 2 urte eta oso kilometro gutxi. Beti garajeon, ondo zaindua. 622369646.
- Sotano komertzial bat alokatzen da 600 eurotan. 650938489
- Txoko polit bat alokatzen da. 650943847
- Atxegalden Arisitxo kalean 90 metro karratu (bi solairutan) dituen lokal bat alokatzen da. 658716970.

LANPOSTUAK

Lan-eskaerak

- Astebukaeratan lan egiteko, zerbitzari moduan aritzeko pertsona bat behar dugu. 943 36 67 10.
- Txiriboga tabernan zerbitzari bat behar da astebukaeratan lan egiteko. 699451082.

Lan-eskaintzak

- Mutil gazte bat eskaintzen da baserri edo baratzeko lanak egiteko, mendia garbitzeko edo igeltsaritza lanetan aritzeko, 677593772.
- Esperientziadun arkitekura ikaslea udan zehar klase partikularrik emateko prest legoke 10-17 urte bitarteko gazteei. Tf: 628 06 54 70
- Neska gazte bat eskaintzen da udaran zehar klase partikularrik emateko, LH eta DBH mailak. 630 642 352.
- Etxeko lanak egiteko prest nago, arratsaldez, baita jende nagusia edo gaztetxoak orduka zaintzeko ere. Telefono zenbakia: 606 800 837.
- Neska bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, pertsona helduak zein haurrak zaintzeko edo ostalaritza lanetarako. Esperientziaduna. 658107757
- 23 urteko mutila, Usurbilen lan bila dabil barrako zerbitzari edo sukaldari laguntzaile gisa lan egiteko urte osorako. Lanean berehala hasteko prest: 622 065 461 (Alex).
- Neska bat, etxeko lanak edo haurrak zaintzeko prest, goizez 8:00-15:00 artean. 679 742 413.
- Astebukaeratan edo astean zehar goizeko 10:00etatik arratsaldeko 16:00ak arte garbiketa lanak edo pertsona helduen zaintzan lan egiteko nago. Interesatuak deitu 618410123
- Emakume batek interna moduan pertsona helduak zein haurrak zaintzeko lana bilatzen du. 660554968
- Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. 676188411
- Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. 630438571
- Gizon bat eskaintzen da pertsona helduak zaintzeko edo baserriko lanak egiteko. 662461568
- Jardineritza lanak egiten ditut, txukun eta modu onean. Inaki: 677 44 31 40.
- Saltzaile, zerbitzari, pertsona helduak zein haurrak zaintzen edo garbiketa lanak egingo nituzke.

Interesatuak deitu 656446835

- Mekanikari gisa, baserrian, edota helduak zaintzeko prest nago. 648 785 026.
- Emakumea interna edo goiz zein arratsaldez orduka lan egiteko prest. 648 785 026.
- Zerbitzari, sukaldari laguntzaile edo garbitasun lanak egiteko neska bat eskaintzen da. 664048228
- Mendingo edo abeltzaintzan lan egiteko prest nago. 666 38 26 97.
- Emakume bat orduka edo interna moduan lanean aritzeko eskaintzen da. 608 835 033.
- Matematika eta estatistika klaseak ematen ditut, edozein mailan, esperientzia handia. 646 717 676.
- Autoen mekanikari gisa lan egingo nuke. 943 368 574.
- Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. 620 185 927.
- Arratsaldetan umeak zaintzeko neska eskaldun bat eskaintzen da. 685 716 774.
- Etxeko lanak egiteko neska bat eskaintzen da. 630 768 325.
- Neska bat eskaintzen da haurrak edo pertsona helduak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 620 364 176.
- Pintore edo burdinlari gisa lan egiteko prest nago. 654 217 752.
- Fisika eta matematikako klase partikularrik emateko prest, neska gazte esperientziaduna. Lehen Hezkuntzatik Batxilergo mailara arte. 685 772 602 // 943 371 277.
- Etxeko lanak egiteko edo haur zein pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da pertsona bat. 671884360.
- Neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko zein etxekolanak egiteko. 679742413.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Haurren bixera gorri bat aurkitu genuen ekainaren 10ean, Atxegaldetako bidean. Galdu duenak deitu edo galde dezala udaltzaingoa.
- Manta berde bat galdu genuen ekainaren 10ean, Bizkarretik Santuenerako bidean. 943 360 285.
- Flex markako ohe artikulatua eta latex koltxoia salgai. 700 euro. 667521874
- Wii kontsolaren softwarea aldatzen da segurtasunaren kopia kargatu ahal izateko, DVDaren edo USBaren bidez txipik instalatzeko beharrik gabe. Kontsola ez da irekitzen eta horrela, garantia ez da galtzen, dena softwarearen bidez egiten da. 635729637
- Argazki zaharrak berritzen ditut. Bideoak montatzen ditut bai bideoarekin, bai argazkiekin DVD formatoan. 635729637
- Aiako babarruna salgai, prezio onean. 670410273.
- Zaldi bat jartzeko lur sail bat edo ikuilu bat alokatuko nuke Usurbil edo inguruan: 616260451
- 7 gazteko lagun taldea gara eta lokal bat alokairuan hartuko genuke, 200 bat euro. 606 101 980.
- Ostalaritzako makinaria, kafetegiko altzariak salgai; aulkak, mahaia, kafe-makina... 607 389 570 (Mireia), istergo@hotmail.com
- Informatikaria naiz. Ordenagailuen edo informatikari buruz edozein zerbitzu behar izanez gero. Oskar: 609 468 759 oskarsm@hotmail.com
- Ezkontzetan abesteko talde bokal bat nahi baduzu, deitu 665745071 (Inaki)
- Ohea egiten den 3 plazako sofa bat daukat salgai 125 euro. Kolore argia, txuri-beig kolorekoa. 655731915
- Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari lirikoa. Maketa bat entzungai daukat. 690784113
- Etxebizitzaren erreforma orokorrak egiteko zerbitzua. Jon 672 173 466.
- Pottokak salgai, kalifikatuak eta subentzioa jasotzen ari direnak beraien moral jaioberriei eta urtebeteko behorra. Tf: 626 220 925.



Zorionak Anje!!! Ekainaren 24 an 3 urte beteko dituzu. Ospatzeko, zuk bixkotxo goxoa prestatu eta guk txokolatea! Muxutxuak, Unax, Oihan, June eta Aratz.



Zorionak Onditz! Ekainaren 19an 7 urte beteko dituzu, ondo ondo pasa zure urtebetetze egunean eta muxu handi bat, etxekoen partetik.



Zorionak Janire! Ekainaren 28an 7 urte egingo dituzu. Bizkotxo goxo bat prestatu eta ondo pasa egun horretan. Muxu pilo bat Julen, Ane eta familia guztiaren partez.

teilatuak eta fatxadak
JOSE AIZPURUA UNANUE

Obaba kalea 29 · ASTEASU
 ☎ 943 69 68 52 · 620 800 186

J.ORBEGOZO

ITURGINTZA · GASA · BEROKUNTZA

BIZKARRA 1, I.EBK 943372937 · 659602789

Asma dezagun geroa



KONTRATATU EZAZU REPSOLEN GASA ETA BETE ZAITEZ ENERGIAZ

Gaur egungoa, eroso, ekonomikoa eta horniketa jarraitu eta mugagabekoa, gozatu **USURBILEN** zure etxean berokuntza, ur beroa eta sukalderako nahi duzun guztietan gasaren abantailaz. Eta bete zaitez energiaz Repsolen gasarekin.



REPSOLGAS

Deitu eta informa zaitez
901 100 125 edo repsol.com

UDARREGI IKASTOLA



PARTAIDE
IKASTOLAK



On do paxa sant xabekak!!!



943 361 216

Udarregi Ikastola

Gernika ibilbidea. USURBIL

www.udarregi.com

www.udarregi.mundua.com

N!!!

gehigamni berezia
Santixabelak 10
ustailak 2



LIZARDI LIBURVENDTA



IKASTURTE BERRIRAKO
LIBURUAK SALGAI
Oporretarako koadernoak, testu liburuak,
eskolako materiala...

Etxebeste kalea, 1
☎ 943 361 115

*Ondo pasa
Santixabeletan!!*

ANTXETA jatetxea



eguneko menuak
karta
plater konbinatuak
ogitartekoak
pintxoak
igandetan menu berezia

Ospakizunetarako toki aproposa!

Eguzkitza, 4 • tel.: 943 37 03 44



Ondo pasa Santixabelak!



**Festetan, udalekutan eta
oporretan
ondo pasa!**

Osinalde Industrialdea
Telf: 943 36 32 90 / 943 36 10 94
Faxa: 943 36 32 96



HERRIKO TALDE ETA ELKARTEAK, JAIEN ANTOLAKUNTZAREN ATZEAN

Ekainaren 30etik uztailaren 4ra ospatuko diren Santixabelak alde zuzenetik diseinatzen dira urtero. Azken hilabeteotan udalbatza aretoan bildu den Jai Batzordea arduratu da herriko festak lotzeaz.

Jai Batzordean ordezkariak dute modu batean edo beste batean, Santixabeletan ekitaldi bat edo gehiago antolatzeko asmotan dabiltzan herriko elkarte, talde edo norbanakoek. Guztia koordinatzen jardun du, Udaleko Euskara eta Kultura departamenduak.

Apirilaz geroztik hiru bilkura burutu dituzte, eta beste zereginen artean, ordezkariak beren proposamenak aurkeztu eta ekitaldi bakoitza, egun, ordu eta leku zehatzetan kokatu dituzte.



PROPOSAMENAK AURKEZTEKO GUNEA DA JAI BATZORDEA.

UZTAILAREN 1EAN

“laz larunbarekin ospatu ondoren, Haurren Eguna astegunera itzuli da aurten”

Jai Batzordean ere Santixabelak zer egunetan hasi eta noiz arte luzatu adostu dute, baita jai egun bakoitzean zer ekitaldi txertatu ere. Hala erabakita, iaz larunbarekin ospatu ostean, Haurren Eguna astegunera itzuli da aurten.

Santixabel egun eta Oilasko Biltzaileena biak uztailaren 2an ospatuko dira. Jaietako larunbat eta igandea ohiko ildotik joango dira, ekitaldi eskaintzari dagokionean.

EGITARAUA, EGUNOTAN ESKURAGARRI

Jai Batzordetik bideratu da egitarau diseinu lehiaketa. Inoizko parte hartze handienarekin, aurtengoan hamar diseinu lan aurkeztu dituzte herritarrek. Jai Batzordeak azken bilkuran hala erabakita, Olatz Goenaga eta Aitziber Lanberrik egindako diseinu lanaren bidez izango dugu aurtengo jaien berri. Diseinu lan koloretsu eta bizia aurkeztu zuten lehiaketara, herritarrak protagonista zituen argazkiez josia. Ikustear izango da euren lanaren emaitza, jai egitaraua egunotan banatzekoak baitira etxebizitzetan.



EGITARAUAREN AZALA.

NOAUA! ASTEKARIA. GEHIGARRI BEREZIA

uztailak 1 osteguna



ERRAUSTEGIA

ZINTZILIKATUKO DUTE FRONTOIAN...

... Baina ez dute jaien amaieran erraustuko. Hori izango da aurtengo maskotaren tokia beteko duena. Aurtengo maskotaz arduratzeko laguntzaile bila zebilen Jai Batzordea eta Patxi Azpiroz animatu da maskota hau egitera.

Iaz, organikoa jasotzeko ontzi marroia zintzilikatu zuten frontoian. Aurten, errauste planta egitasmoaren sei urteko moratoria eskaerak indar hartu duen honetan, Zubietan Aldundiak eraiki asmo duen azpiegitura datozen Santixabeletako maskota izango da. Jaiak amaitu artean beraz, errauste planta zintzilik ikusi ahal izango dugu pilotalekuan. “Ez, ez, ez, erraustegirik ez!” aldarria irudikatu asmo du maskotan, bere egile Patxi Azpiroz herritarrak.

Iragartzen duenez gainera, maskotak ez du aurreko urteetako amaiera bera izango. Erraustegia ez dute erraustuko. Lau egunez pilotalekuan zintzilik egon ostean, uztailaren 4ko gauean Dema plazara jaitsiko dute, Elizako hormaren parera. Bertan, kea botatzen jarriko dute errauskailuko tximiniatik. Hurbilduko diren herritarren zeregina ke hori desagerraraztea izango da. Ekitaldi berean ez da su festarik faltako, baina aipatu moduan, aurten maskota ez da erreko. Erabat parte hartzailea izango da beraz jaien amaierako ekitaldia.

Dema plaza apain-apain

Erraustegia beira eta zuntzarekin sortu du Azpirozek. Gogorarazten duenez, aurrera begira berrerabilgarria izango da Santixabel hauetan zaindari lanak egingo dituen maskota.



IAZKO MASKOTA, ORGANIKOA BILTZEKO ONTZI MARROIA IZAN ZEN.

Material berrerabilgarriak baliatuta egin ditu baita Azpirozek, duela bi urte moduan, jaietan Dema plaza eremua apainduko duten zintzilikagarriak. Elizako kanpandorretik Dema plaza inguratzen duten frontoi eta etxebizitzetara hamaika zintzilikagarri lerrok dotoretuko dute jai gune nagusia. Azpirozen esanetan, “asmoa 2008koak berrerabiltzea zen”. Baina egoera txarrean zeudenez, joan den otsailean hondakinen kudeaketari buruzko herri galdeketari lotuta atez ateko bilketaren aldeko kanpaina baliatutako apaingarriak baliatuko ditu usurbildarrak, lokarri sendoago batekin. Asmoa etorkizunean ere berrerabili ahal izatea da, eta helburua lortuko duela dio Azpirozek.

“Otsaileko ziklogenesia jasan zuten”, gogoratzen du. Beraz, Santixabeletan hondatzeko arriskurik ez dago.

MURAL ERRALDOIA, ELIZAKO HORMAN

Gaztetxoek ekainaren 30ean arratsaldeko 15:00etik aurrera margoak hartu eta irudimena erabilia mural erraldoi batean marraztu ahal izango dute. Haurren Egunean, uztailaren 1ean Elizako horman zintzilikatuko dute murala eta bertan egongo da jaiak amaitu artean.

Txiriboga



Ondo pasa
Santixabeletan!



MIKEL ARRAINDEGIA

Ondo pasa jaiak!



Alperro buru, 1 • ☎ 943 366 356

LATAILLADE



ITURGINTZA

Ondo pasa Santixabeletan!



Iturgintza, gas,
berogintza eta
klimatizazioa

**INSTALAZIOAK ETA
MANTENIMENDUAK**



ARISTITXO 8 BEHEA

943 363 348 • 609 888 021

NOAUA! ASTEKARIA. GEHIGARRI BEREZIA

uztailak 1 osteguna



ITZIAR ALVAREZ GOGOAN IZANGO DUTE DANBORRADETAN

Duela bospasei urte hartu zuten Eva Ugartemendiak eta Itziar Alvarez herritarrek haur eta helduen danborradak antolatzeko ardura, antolakuntzan zegoen hutsunea zela eta. Orduetik bien artean prestatu dituzte adin tarte desberdinetako herritarrak bildu eta Santixabeletan tradizio luzea duten bi ekitaldiak.

Hilabete hasieran zendu zen Itziar. Gogoan izango dute jaietan burutuko diren bi danborrada saioetan. Bere irudia eta danborrada bultzatzeko burututako lana oroituko dute, haur eta helduen danborradetan. "Berak egiten zuen antolaketa lan gehiena, bera arduratzen zen bi danborradak koordinatzeaz", adierazi du Ugartemendiak.

Emanaldi bereziak

Helduen danborrada, beti bezala uztaialaren 1ean burutuko da. Arratsaldean eta gauerdian irten ohi dira Santixabel bezperan danborra jotzera, aurtengoan ordea, afalurreko saioa bertan behera utzi da. Gauerdikoa mantenduko dute.

Haurrena, bere horretan

Santixabel egunean burutuko den haur danborrada bere horretan mantenduko da.

Eguerdian udaletxeko plazatik abiatu, Kaxkoko kale nagusiak zeharkatu eta frontoian amaituko da. Helduen saioan bezala, uztaialaren 2koan ere Itziar gogoan izango dute.

Azken entseguak

Bi hilabete daramatzate astero Udarregi ikastolako Haur Hezkuntzako eraikin azpian, danborradako saioak prestatzen. Kalera danborra jotzera



EZUSTEA ERAGIN ZUEN ITZIAR ALVAREZEN HERIOTZAK. DANBORRADAREN ALDE LAN HANDIA EGITEN ZUEN JAIETAN. IRUDIAN, IAZKO HELDUEN DANBORRADA ZUZENTZEN AGERI DA.

irten baino lehen oraindik beste bi entsegu geratzen zaizkie ordea, ostiral honetakoa, ekainak 25. Azken presta-

keta saioa, hilaren 30ean burutuko dute Agerialden, oraingoan jaietan lagun izango duten txarangarekin.

HELDUEN ETA UMEEN DANBORRADAK

Uztailak 1 osteguna

00:00 Gauerdian, helduen danborrada udaletxe aurrean.

Uztailak 2 ostirala

12:00 Haurren danborrada udaletxe aurretik hasita. Jarraian, lore eta salda banaketa Dema plazan.



Ordo pasa San Juanetara!

Xabier Larrarte Ezeiza
Enpresaritzan Lizentziatua

Zubiaurenea, 10 Behea
20170 USURBIL

Tfnos. 943 371 807
Mugikorra. 630 904 365
Faxa. 943 376 341



LARRARTE
ASEGURU ETA INBERTSIOAK S.L.

ALDAMU
konponketak



ORDO PASA JALETAN!

Nagusia 10 (atzekaldea) 943 37 27 95

GOLDWELL
ELUMEN



**Koloraziotan teknika
berriak eta iraunkorrak**

Zubiaurenea 10 / 943 361 951

Ordo pasa San Juanetara!

izagirreletrizitatea@hotmail.com

izAgirre

ELEKTRIZITATEA

Ordo Pasa Nagusia 37 Hilerria

Tel: 943 35 50 95

Mugikorra: 609 068 111

Faxa: 943 37 65 87

NOAUA! ASTEKARIA. GEHIGARRI BEREZIA

uztailak 1 osteguna



HAURREN EGUNA, ERESERKI ETA GUZTI INDARTUTA DATOR

“Alaia, martxosoa, eta kalejira zein txaxa-erritmoak uztartzen dituen, eguna ondo pasatzeko erritmoa izango da”, adierazi du jaietako Haurren Eguneko antolaketa lanetan dabilen gurasoetako batek, Begoña Izetak. Indartsu dator uztailearen lehen ospatu eta gaztetxoenei zuzendua egongo den egun pasa. Goizean goizetik gainera. Aurtengoan, hasiera ekitaldi ofiziala izango du Haurren Eguna, goizeko 10:00etan frontoian.



Ereserki eta guzti gainera, abestia sortu baitute. Ideia bat batean bururatu zitzaizen antolatzailerei, duela aste gutxi. Ideia bururatu eta laster batean, prestakizun makinaria guztia martxan jarri zuten. Ander Izetak sortu du letra, eta ahotsa Olatz Kortaren ardura izan da. Abeslari lanetan jardungo dute baita Zumarte musika eskolako abesbatzako gaztetxoek ere.

Instrumentazioa zehaztu eta haurren ahotsak kantan txertatzekoak ziren egunotan. Abestia prestatuta, hedapen lanak hasiko dituzte gero. Herriko tabernetan eta gaztetxoaren artean banatuko dute kanta, Izetak oroitarazten duenez, “Haurren Egunerako abestia denok ikas dezagun”. Abestiarekin ere dantza bat sortzen ahalegindu nahi dute antolatzailerek. Jai hauetarako sortutako kanta, etorkizunean ereserkian bihurtu nahi dute.

Zapia, fukzia kolorekoa

Haurren Eguneko hasiera ekitaldian, abestia jendaurrean aurkeztuko dute. Horrekin batera, festa egun honi dagokion zapia-fukzia kolorekoa aurten-jantziko dute lanean jardungo duten aita-amek, eta noski, jokoetan parte hartzera hurbilduko diren haur eta gaztetxoek. Hortik aurrera, denak ondo pasatzera.

“PRIMERAKO EGUNAREN LELOA” KANTUAREN LETRA

Udara heldu da ta festa giroan gera
Etxetikan kalera goizetik arratsera
(BIS)
Primeran pasatzeko orain gure aukera
Ta Usurbilen gainera, ta Usurbilen gainera

Gaurko egun guztia hain berezia degu
Gure_eguna ospatzea degulako helburu
(BIS)
Aztoratuko degu itsaso lur ta zeru
Ez aita eta ez ama ez daude seguru, ez daude seguru

**Urte guztian zehar itxaron deguna
Santaixabel jaietan gaur da:
gure eguna, EGUNA, EGUNA**

Urte pasa degu eskolakoan jiran
Itxaroten oporrek noiz etorriko ziran
(BIS)
Estresak jota geunden egun honen desiran
Disfrutatu behar degu gaurko kalejiran, gaurko kalejiran

**Urte guztian zehar itxaron deguna
Santaixabel jaietan gaur da:
gure eguna, EGUNA, EGUNA**

**Urte guztian zehar itxaron deguna
Santaixabel jaietan gaur da:
gure eguna, EGUNA, EGUNA**

txirriStra

TABERNA



- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak
- Pintxoak

ONDO PASA SANTIXABELAKI!

Kontseju zaharra, 13
Telf: 943 36 04 66



Errazkin S.L.

igeltseritza orokorra

943 372 679

649 435 470

kale nagusia 47, behea A

USURBIL AUTOAK

**Zerbitzu
Ofiziala**



Ondo pasa
Santixabeletan!



Telf: 943 361 079

Faxa: 943 366 292

Aitzezarra kalea, 1

Zumartegi Industrialdea

KOTXEEN SALMENTA ETA KONPONKETA

EDOZEIN MARKAKO KOTXEEN KONPONKETA!

NOAUA! ASTEKARIA. GEHIGARRI BEREZIA

uztailak 1 osteguna



JOKALEKU UGARI HAURREN EGUNEAN

Urtero moduan, oraingoan ere Udarregi ikastolan seme-alabak ikasten dituzten gurasoen artean zozketa egin da Haurren Eguneko antolakuntza taldea osatzeko, eta emaitza izetak definitzen du. "Guraso talde martxosoa bildu gara aurten", adierazi du.

Izenburutzat "Primerako egunaren leloa" duen abesti berria sortzearekin batera, Haurren Egunean ospatuko diren ekitaldietan ere berrikuntzak txertatu dituzte. "Taldekako jokoak, oso aktiboak direnak sustatu nahi izan ditugu", adierazi du Izetak.

Horien artean, Lehen Hezkuntzako ikasleei zuzendutako ginkana erraldoia dago. Parte hartzaileek, taldetan bilduta mapa bana jasoko dute, herriko gunes desberdinetara gidatuko dituen. "Herriko arkitektura baliatu nahi izan dugu frogetarako", adierazi du Izetak. Parke, bolatoki edota bestelako erreferentziakoak diren herriko gunetan aipatu moduan, zenbait froga burutu beharko dituzte jokalariek. Proba behar bezala gaindituta, mapan zehaztutako hurrengo gunera joateko txartela jasoko dute.

Ginkana erraldoia

Ginkanan parte hartzeko taldeak azken asteotan Udarregi ikastolan osatu dira. Antolatzaileen aurreikuspenen arabera, gutxienez LH-ko 180 bat gaztetxoren parte hartzea espero dute. Baina Haurren Eguneran adin tarte baxuagoko lagunak ere hurbilduko dira. Haiek, txikienek goiz eta arratsaldean puzgarriak izango dituzte.

Txu-txu trenaren eguerdian

Baita Molto Grand Prix delakoa frontoian bertan, moto zirkuituak hain zuzen. Goizerako eskaintza, Kiroldegi pareko giza futbolinak eta talde joko alternatiboak osatuko dute.



TXU-TXU TRENA IBILIKO DA UZTAILAREN 1 EAN.

Bestalde, herritik osteratxo bat egin nahi duenak, iaz arrakasta izan zuen txu-txu trenaren igo ahal izango da

aurten ere. Goiz zein arratsaldean gurtzatuko du batek baino gehiagok txu-txu trenarekin Kaxko ingurua.

EIDABE TALDEKOAK, BUELTAN

Bazkalostean jai giroa eten ez dadin, Eidabe taldekoak gonbidatu dituzte. Duela urte batzuk "Kanpanolue" ikuskizunarekin hurbildu ziren, oraingoan, "Atxikistan" izeneko saioarekin. Kanpanoluek ezagutzen ez duen herri bat da Atxikistan. Alaitasuna eta dibertimendua nagusi diren herrian, amets guztiak egi bihurtzen dira. Atxikistaneko jaialdira doaz munduan zehar dantzan eta jolasean aritu ostean, 25 milioi Kanpanoluzale.

Baina ez dakite herria non dagoen, ezta ospakizunetara garaiz iritsiko ote diren ere. Maleta prestatu

eta Atxikistanerako bidaiara joatea proposatzen diete ikuskizunaz gozatzen hurbilduko diren lagunei. Hitzordua, Haurren Egunean 15:30etan frontoian.

Ikuskizunaren ostean, txokolate gozoa dastatu eta erraldoi zein buruhandiekin lasterka egitea proposatzen dute Haurren Egunean. Kirola egin nahi duten gaztetxoek etxeko bizikleta hartu eta Artzabalera joan daitezke.

Bertan, Buruntzapir txirrituzale elkartearen eskutik, 10-14 urte arteko gaztetxoek txirritu gainean ibiltzeko zirkuitu bihurrian parte hartu ahal izango dute.



ARTZABAL BASERRIA

Artzabal

Santixabeletarako menu bereziak:

Udako menua: 18€

Santixabel menua: 30€

**Ondo pasa
Santixabeletan!!!**



Ondo pasa
Santixabeletan!!

Mota guztietako errotuluak

- Ibilgailuak ·Erakustokiak
- Pankartak ·Kartelak
- Inpresio digitala ...

kale Nagusia, 10 - Tel/Faxa: 943 36 60 21

Patri jatetxea



Patri jatetxea

☎ 943 36 27 25

erreportajea



HERRI KIROL PROBAK, "SAIATUZ" ELKARTE BERRIAREN ESKUTIK

Hileotan astegun buruzuri batean Dema plazara hurbildu denak harriari tiraka ikusiko zituen zenbait herritar. Herri kiroletarako zaletasuna duen lagun taldea bildu da jarduera hauek bultzatzeko asmoz, eta aurten, urrats herri bat eman dute; elkarte bat sortzea. Bilgune berriak, Saiatuz izena du. Bertan biltzen dira herriko jaietako ekitaldi desberdinetan parte hartzen ikusiko ditugun herriko aizkolariak, baita giza probako kirolariak ere.

Izen propio ugari izango dituzte herri kirol probek. Miren Urkiola, Idoia Etxeberria, Izeta II eta Haimar Irigoien harri jasotzaileena; baina baita herriko zenbait kirolariena ere. "Usurbil-Agiña" giza-proba eta Usurbilgo Aizkolarien Txapelketa antolatu baitituzte.

Taldea elkarte bezala erregistratuta, besteak beste, bilgune ofizial moduan ez dute trabarik izango dirulaguntzak jasotzeko. Eta elkarte bezala antolatuko dituzte aurrerantzean Usurbilgo herri kirolei lotutako ekitaldiak. Datozen herriko jaietakoak adibidez. Aurtengorako hiru hitzordu programatu dituzte Santixabel egunerako eta uztailearen 4rako. Miren Urkiola, Idoia Etxeberria, Izeta II.a eta Haimar Irigoien harri jasotzaileek erakustaldia eskainiko dute Santixabel egunean, aurreko urteetan Usurbilgo Pilota Txapelketako finalak jokatu izan diren arratsaldean hain zuzen. Aurtengo garaileak nortzuk diren jakiteko uztailearen 3ra arte itxaron beharko da.

Harri jasotze erakustaldiaren ostean, Usurbilgo harriaren aurkezpena burutuko da uztailearen 2an.



MIREN URKIOLA ETA IDOIA ETXEBERRIA HARRI JASOTZAILEAK ARITUKO DIRA AURREZ AURRE.

Usurbilgo harria

Saiatuz elkartetik jakinarazi duteenez, 151 eta 96 kiloko harri bana ekarriko dute jaietako ekitaldira. Harriok Mendizorrotzeko malda batetik ateratakoak dira.

Dema Plazan burutuko da ekitaldia, giza proba bezala. Usurbil eta Aginagaren arteko desafioak ez dira gaur gaurkoak. Lehiarako grina Aginagako San Praixkutako estropadetan erakutsi izan ohi dute batzuek zein besteek. Oraingoan giza proban indarrak neurtuko dituzte, uztailearen

4an. Bi taldeek mila kiloko harria aurrera eta atzera mugitu beharko dute hogei minutuz. Zeinek itzuli gehiago egin, hortxe lehiakideen erronka edo apustua.

Herriko aizkolariak

Ordu batzuk lehenago, eguerdi partean usurbildar aizkolariak aurrez aurre, hamar kana erdiko txanda librean arituko dira. Partaideak hauek izango dira: Arrilla I-Urtzi Olasagasti, Arrilla II-Dorronsoro eta Iruntxo-Itzaio.

erreportajea



HERRI KIROLETAN HASI NAHI DUENARENTZAT, GUNE APROPOSA

Saiatuz elkarteko giza probako partaideak, Usurbilgo saioa baino egun batzuk lehenago, Altzan arituko dira. Elkartetik gogorarazten dutenez, Tolosan ere egonak dira eta duela hilabete Aian antolatutako proban parte hartu zuten.

Aukera duten saioetan parte hartzeko asmotan dabilta, eta Saiatuz izango da aurrerantzean, Usurbilen herri kirolen arloan burutuko diren ekitaldien antolakuntza lanez arduratuko den elkartea; hala nola, San Ixidro edota azaroaren 1eko saioez, baita astebete barru ospatuko diren jaietako erakustaldiez ere. Saiatuz, taldea irekia da, herri kiroletan hasi nahi duenarentzat ateak zabalik dituzte.

Dema Plazako hitzorduak Uztailak 2, ostirala

18:30 Miren Urkiola / Idoia Etxeberria eta Izeta II / Haimar Irigoien harri jasotzaileak.

Ondoren, Usurbilgo harriaren aurkezpena.

Uztailak 4, igandea

12:00 Usurbilgo Aizkolarien

Txapelketa:

Arrillal-Urtzi Olasagasti.

Arrilla II-Dorronsoro.

Iruntxo-Itzaio.

18:00 Giza proba: Agiña-Usurbil.

Eta idi-proba: J.M. Olasagasti eta J.A. Telleria.



HAIMAR IRIGOIEN SANTIXABEL EGUNEAN ARITUKO DA LEHIAN. IDI-PROBA, ORDEA, UZTAILAREN 4AN IGANDEA EGINGO DA.

NOAUA! ASTEKARIA. GEHIGARRI BEREZIA

ekainak 30 - uztailak 4



MUSIKA ESKAINTZA ZABALA

Jai Batzordetik aldaketak txertatu dituzte jaietako musika eskaintzari dagokionean. Usurbilgo, Euskal Herriko eta baita, Kubatik datorren musika talde baten emanaldiek jaietako ordu asko, gauekoak bereziki, girotuko dituzte. Baina egunez ere izango da zer entzuna Santixabeletan, musika ezinbesteko osagaia izan ohi duten herriko jaietan.

UK Bill, I can't explain eta 3gabe2 txosnetan

Jaietako lehen kontzertua izango da, U.K. Bill, I can't explain eta 3gabe2 taldeek eskainiko dutena. Hiruren kontzertuak txosnetan burutuko dira ekainaren 30ean, asteazken gaueko 23:00etik aurrera.

Des-kontrol, Arima Sutan eta Akatu ostiral gauez

"Aurrera begira" lana kaleratu zuen iaz Des-kontrolak. Uztailaren 2an ostirala, gaueko 23:00etik aurrera arituko dira frontoian. Arrasateko taldeak kontzertu gau luzeagoari hasiera emango dio. Arima Sutan eta Akatu taldeek ere joko baitute pilotalekuan.

Hotzikara eta Odolaren Mintzoa, azken egunean

Trikihots taldearekin batera, herriko bi musika taldeek agurtuko dituzte Santixabelak: Hotzikara eta Odolaren Mintzoa taldeen kontzertuek. Txosnetan joko dute goizaldeko 1:00etik aurrera. Odolaren Mintzoak iazko urte amaieran kaleratu zuen grabatutako lehen make-ta. Taldea laukote honek osatzen du: Luken Arkarazok (ahotsa eta gitarra), Joanes Txuekak (baxua), Beñat Txuekak (gitarra) eta Jokin Irastorzak (bateria).

Hotzikara taldea ere, urte berean sortu zen, 2009ko udan. Euren esanetan, oso entzuna ez den musika estiloa jorratzen dute, "trash core" izenekoa: David Illaramendik (aho-



DES-KONTROL TALDEKOAK SANTIXABEL EGUNEAN ARITUKO DIRA.

tsa), Antton Aranburuk (kitarra), Beñat Arteagak (baxua) eta Mikel Olasagastik (bateria).

Kubako doinu beroak Deboson taldearen eskutik

Jaioterriko herri musika ondarea berreskuratzeko lanean jardun du sortu zenetik, Kubako Deboson taldeak. 1995. urteaz geroztik sonortatea hobetu eta aberastea izan dute erronka nagusia. Hamabost urteotan nazioarte mailako kritika eta publikoa irabazi ditu, bisitatu izan dituen herrialdeetan.

Salsa, guaratxa, kunbia, merenge eta boleroak nagusituko dira jaietako azken gauean, 23:30etan hasita frontoian.

TXARANGEN KALEJIRAK

Maiatza amaieran burutu zen kantu-jiran parte hartu zuen Kuxkuxtu txaranga Santixabeletara dator berriz. Larunbat goizeko lehen orduak alaituko ditu. Usurbilgo Euskal Kantu Taldeak antolatutako Kantujiraren jaietako edizioa girotuko du goizean zehar, eta gero, baita Askatasuna plazako zikiro jana ere. Larunbat eguerdian burutuko den "errepresaliatu politikoak Santixabeletara!" kalejiran Burdin Klash txarangak joko du.



Ibaiondo

Fisioterapia
Osteopatia
Errehabilitazioa
Masajeak

Ola Kalea, 12 - behea, ezk.
LASARTE - ORIA
Tel / Faxes: 943 370 306
fisiobaiondo@gmail.com

Rafa

iturgindegia



- Kristaldegiko lanak
- Kristalezko mahaia
- Segurtasun beirak
- Kristalezko luzeroak
- Klimalit

astegunetan: 10:30 -13:30 eta 16:30 -19:30
larunbatetan: 10:00 - 13:00

Bordaberri kalea 1, 1 behea • ☎ 943 36 80 04

Kalitatezko produktuekin estilismoa
eta estetika lantzen ditugu



Ondo pasa
Santixabeletan

INTZA
WELLA ILEAPAINDEGIA
PROFESIONAL

Eguerditan Irakial Nagusia 8, 943 36 36 41

Aizpurua

Okindegia

Telesforo ardoak



Testetan gure mahaia
onda hornitu nahi baduzu,
gurean baduzu aukera!

Kale Nagusia, 25 • ☎ 943 36 12 20

NOAUA! ASTEKARIA. GEHIGARRI BEREZIA

uztailak 3 larunbata



HERRIKO FESTAK

ALAITZEKO MODUKO BERTSOLARIAK

Herri kirolak, kontzertuak, haurrentzat ikuskizunak, gastronomia ekitaldiak eta bertso-saioak. Herriko jai askotako hitzorduak izan ohi dira. Baita gure artean ere. Aurten, honako bertolari hauek hurbilduko dira: Amets Arzallus, Igor Elortza, Beñat Gaztelumendi, Unai Iturriaga, Jon Maia eta Jone Uria.

Aurten, hauek izango dira Santixabeletan kantuan arituko diren bertsolariak: Amets Arzallus, Igor Elortza, Beñat Gaztelumendi, Unai Iturriaga, Jon Maia eta Jone Uria. Gai-jartzaile lanetan, ohi bezala, Bota Punttuba bertso eskolakoak arituko dira. Saioa frontoian izango da, uztailaren 3an larunbata.

Bertso-saioaren amaieran, Santixabel Bertsopaper Lehiaketako sari-banaketa egingo da.

Gogoan izan lehiaketara aurkezteko epea irekita dagoela oraindik, ekainaren 29ra bitartean. Xehetasun gehiago aldameneko albistean.



UNAI ITURRIAGA ETA IGOR ELORTZA, GU TA GUTARRAK-EN SAIO BATEAN.

BERTSOPAPER LEHIAKETAN

PARTE HARTZEKO AUKERA DAGO ORAINDIK

Bete behar diren baldintzak:

- Usurbildarra izatea.

- Gai librean idaztea.

- Lanak, ekainaren 29a baino lehen

Udaletxera eman edo postaz bidali:

XXXIV. Bertsopaper Lehiaketa, Joxe

Martin Sagardia Enparantza, 20170

Usurbil.

- Lanek inoiz argitaratu gabeak izan beharko dute.

- Gutxienez 8 bertso; gehienez 10 bertso.

- Sariak: lehenak, 200 euro eta txapela. Bigarrenak, 150 euro.

Hirugarrenak, 100 euro.

- Lanak egilea nor den adieraz

dezakeen daturik gabe aurkeztuko dira, izengoitiz.

- Lanarekin batera kartazal itxi batean partehartzailearen datu pertsonalak ipini.

-Erabakia jaietako bertso saioan emango da aditzera, uztailaren 3an larunbata.


URDAINTZI
eraikuntzak

649 43 54 75 / 76
943 36 72 64

**ERAIKUNTZAK
OBRAK
BERRITZE LANAK**

urdaintzi@euskalnet.net

Auto Guria

Auto Konponketa

Pre I.T.V.

Marka guztiak

Osinalde, 9 • USURBIL (Gipuzkoa)
943 363 298 • Faxa: 943 363 862

Jai zoriontsuak izan ditzazuela!



BBVA

Errekatsiki kalea, 1 - 20170 USURBIL. Tel: 943 377 155

Xukin
igeltseritza orokorra

Barne eta kanpoko lanak

ondo pasa jaietan!

Andoni Errazkin

663 08 76 71
943 24 34 65
20170 USURBIL

NOAUA! ASTEKARIA. GEHIGARRI BEREZIA
uztailak 3 larunbata



GAZTELEKUKOEK KOLORE TOPAKETA ANTOLATU DUTE

Garai bateko Gure Pakea egoitza zegoen gune berean, duela gutxi zabaldu eta martxan jarri duten Gaztelekuak lehen Santixabelak ospatuko ditu, gazteei zuzendutako jokoetan oinarritutako ekimen baten bidez. Kolore topaketa antolatu dute Santixabeletarako. Taldeka bilduta, lau frogatan parte hartu ahal izango dute gazteek. Pare bat proba Gaztelekuko ardurdunek proposatutakoak izango dira, eta beste biak gazteek prestatutakoak.

Jaietarako antolatu duten ekintza, bereziki Gaztelekura hurbildu diren kideei zuzendua dago baina baita haien lagunei ere.

Kamiseta margotzen

Ekimenean parte hartzeko etxetik kamiseta bat eramatea ezinbestekoa izango da. Kamiseta margotzeko aukera izango dute goizean



IRUDIAN, GAZTELEKUKO HEZITZAILEAK ETA DBH1 MAILAKO HAINBAT IKASLE.

zehar. Kolore topaketa ekimena hasteko hitzordu nagusia, uztailaren 3an finkatu dute antolatzaileek, goizeko 11:30etan frontoian.

Bestalde, egun berean orain arte egingandako ekintzak irudi bidez eza-

gutarazi nahi dituzte Gaztelekukoek.

Argazkiak frontoian

Argazki bilduma frontoian ikusgai izango da uztailaren 3an.

GAZTELEKUEN ARTEKO TOPAKETAK

Santixabelak igaro ostean, Usurbilgo Gaztelekukoek herrialdeko beste zenbait Gaztelekuetako kideekin elkartrukeak burutzeko asmoa dute, "Gipuzkoa ezagutzen" izeneko egitasmoaren bidez. Guztien artean, lau irteera antolatu dituzte; horietako bat Usurbilera, gainerako hirurak, Zumaia, Donostia eta

Zizurkilera hurrenez hurren. Lau udalerriotako gazteak bilduko dira irteera horietan, baita Zarautz eta Villabonakoak ere.

Irteera bakoitzean, udalerrira hobeto ezagutzeko jokoak prestatuko dituzte lekuan lekuko ardura duten Gaztelekuko ordezkariak.

Informazio gehiago e-mail honetan: gaztelekua@usurbil.net



DONOSTIAKI AMARA AUZOAN DAGOEN GAZTELEKUA.

Elexpe
ileapaindegia



Ondo pasa
jaietan !

Betileen tintaketa
eta permanentea
Estetika • Tatuaiak

Zutikako eta
Etzandako
Solariuma

Muna Lurra 12. © 943 370 462

edaritegia
BORDATXO

Pintxo bereziak
Bokatak
Plater konbinatuak

onda pasa
Pantixabeletan!!

Zubiaurrenea, 5. © 943 37 10 42

PSU
serigrafia



serigiosu@serigrafiaiosu.com

- kamiseta inprimategia
- pegatinak
- iragarki nahiz industri serigrafia
- laneko arropak
- enpresa opariak
- boligrafoak
- txiskeroak
- laser markaketak...


www.serigrafiaiosu.com

Ugaldea pollig. 36 tel: 943 371954 USURBIL

www.behetik.com

**Eskailerak igotzea...
ez da oztopo!**

-plataformak -igogailu bereziak -aulki bereziak...



b
Behetik

Añorgo-txiki 14, tel: 943 368 781 eta 671 073 888

NOAUA! ASTEKARIA. GEHIGARRI BEREZIA

egitaraua



EKITALDIZ BETETAKO JAI-EGUNAK

Ekainak 30, asteazkena

10:30 Haur eta gazteentzako Pintura Lehiaketa (materiala bertan).

13:00 Pintura lehiaketako sari-banaketa.

15:00 Jaietako mural erraldoia egitea.

18:00 Pala Txapelketaren finalak.

23:00 Kontzertua eta dantzaldia txosnetan: U.K.Bill, I can't explain, 3gabe2.

Uztailak 1, osteguna

10:00 Hasiera ekitaldia frontoian. Goizez kalejira trikitilari gazteekin.

10:00-13:00 Puzgarriak txikienentzako.

10:15-12:30 Molto Grand Prix frontoian (HH mailako umeentzat).

Ginkana erraldoia herrian zehar (LH mailako umeentzako).
Gaztetxoentzako giza futbolina eta talde joko alternatiboa kiroldegi aurreko plazan.

11:00-13:00 Txu-txu tren.

13:00 Buruhandi eta erraldoiak trikitilariekin.

13:30 Umeen lagunarteko bazkaria (norberak ekarrita, postrea banatuko da).

14:00-17:00 Txu-txu tren.

15:00-17:00 Puzgarriak txikien-

entzat.

15:30-17:00 Eidabe taldearen Atxikistan ikuskizuna.

16:00-17:30 Gaztetxoentzako (10-14 urte) txirindako zirkuitu bihurria Artzabalen.

16:30-19:00 XX. Igel Joko txapelketa Artzabalen.

17:30 Txokolatada.

18:00 Buruhandi eta erraldoiak txistulariekin.

19:00 Txosnen irekiera eta txaranga.

19:00 Maskota igotzea.

21:30 Herri afaria txosnetan.

24:00 Txupinazioa helduen danborradarekin batera.



NOAUA! ASTEKARIA. GEHIGARRI BEREZIA

egitaraua



Jarraian, dantzaldia frontoian
Laket taldearekin.

Uztailak 2 ostirala

- 06:00** Oilasko biltzaileen gosaria eta irteera.
- 09:00** Esnadeia txistulariekin.
- 11:00** Meza Nagusia.
- 12:00** Umeen danborrada udaletxe aurretik hasita. Jarraian, lore eta salda banaketa Dema plazan.
- 12:30** Oilasko biltzaileen itzulera frontoi aldera.
- 14:00** Oilasko biltzaileen bazkaria.
- 15:30** Mus Txapelketa txosnetan.
- 17:00** Oilasko biltzaileen jokoak.
- 18:00** "Zirko dantza eroa" ikuski-

zuna Artzabalen.

- 18:30** Herri kirolak. Harri jasotzaileak: Miren Urkiola / Idoia Etxeberría eta Izeta II / Haimar Irigoien. Ondoren, Usurbilgo harriaren aurkezpena.
- 19:00** Buruhandi eta erraldoiak txarangarekin. Jarraian, Zumartxan txaranga.
- 23:00** kontzertua frontoian: Deskontrol, Arima Sutan, Akatu.
- 02:00** Platano dantza txosnetan.

Uztailak 3 larunbata

- 09:00** Esnadeia dultzaineroekin. Egun osoan, dultzaineroak.
- 09:30** VI. Kayak jaitsiera Alirin (Zubieta).
- 11:00** Kantujira Kuxkuxtu

txarangarekin.

- 11:30-13:00** Gaztelekuko udako Festa: kolore topaketa (margotu daitekeen kamiseta ekarri).
- 11:30-13:00** Toka txapelketa Artzabal Baserrian.
- 12:00** Errepresaliatu politikoak Santixabeletara! Kalejira Burdin Klash txarangarekin.
- 14:30** Kantu-zikiro-jana Askatasuna plazan, Kuxkuxtu taldearen laguntzarekin.
- 17:00** Zirko tailerra Artzabalen.
- 17:00** XXXVIII. Pilota Txapelketako finalak.
- 17:00** "A un toke" txapelketa txosnetan (16 urtetik gorakoentzat). Ondoren, triki-bertso poteoa (Ane Labaka eta Amaia Iturriotz).



A. Bruño e Hijos S.L.

ondo pasa Santixabeletan!

ANGULAK ETA ITSASKIAK
Menu ezberdinetako
aurrekontuak egiten ditugu.

Egin aurrekontuak eskaintza telefonikoa:
☎ 943 37 27 88 (hurbil)
logoratu Kaleko Zumartxan.



Gandax, langostinak, arrainak,
nekora, langostak, izur, zantxelo,
saxa kumarkak, abajuria, ardo botila.

65€

NOAUA! ASTEKARIA. GEHIGARRI BEREZIA

egitaraua



Uztailak 3 larunbata

18:30 Buruhandiak dultzaineroekin.

19:00 "Lan baten bila", antzezlanaren Sutegin.

20:00 Omenaldia.

22:30 Bertso-saioa frontoian.

Bertsolariak: A. Arzallus, I. Elortza, B. Gaztelumendi, U. Iturriaga, J. Maia eta J. Uria.

Gai-jartzailea: Bota Punttuba. Ondoren, XXXIX. Santixabel Bertso-paper Lehiaketako sari-banaketa.

00:30 Dantzaldia frontoian Mikel Hats taldearekin.

Uztailak 4 igandea

09:00 Esnadeia dultzaineroekin. Egun osoan, dultzaineroak.

10:00 VII. Ur-bataioa Oiardo Kiroldegian.

10:00-11:30 Santixabel Bola Txapelketa irekia.

11:30 Zarpantzarrak.

12:00 Meza Nagusia.

12:00 Herri kirolak. Usurbilgo Aizkolariaren Txapelketa.

13:00 Herriko dantzarien emanaldia frontoian.

14:00 Jubilatuen bazkaria.

17:00 Patata tortilla lehiaketa txosnetan.

17:00-18:00 Santixabel

Bola Txapelketa irekia.

18:00 Herri kirolak. Giza proba: Agiña-Usurbil eta idi-proba: J.M. Olasagasti eta J.A. Telleria.

18:30 Buruhandiak dultzaineroekin.

19:00 Kantaldia txosnetan: Gartxot.

23:00 Azken traka.

23:30 Kubako Deboson musika taldea frontoian.

01:00 Kontzertua txosnetan: Odolaren Mintzoa, Hotzikara, Trikihots.

***Oharra:** Sutegiko Erakusketa Aretoan Zirriborro tailerrekoen eta bitxigintza ikastarokoekin lanak egongo dira ikusgai.*



Ondo pasa Santixabelak!

*Zusturritik gogoratzen
gogoratzen gustatzen!*

Santuenea,
Telf: 943 36 50 31
Mobila: 670 02 77 31



SAGARDOTEGIA

BENTA TABERNA

ERAMATEKO OILASKOA
PATATAREKIN

10 €



Ondo pasa
festetan!



943 36 95 05 665 60 00 20



ARDI BELTZ GARAGARDOTEGIA

ondo ibili festetean !!

- Entsalada bereziak.
- Plater konbinatuak.
- Eguneroko menua.
- Asteburuko menua.
- Bokatak eta razioak.
- Inportatutako garagardoak.

Puntapak 12 - USURBIL - ☎ 943 367 054

Poxpolin

mertzeria



943 36 82 06
Zubiaurrenea 3, baxua

Loli Lizarralde

ileapaindegia · Estetika Zentroa

L'ORÉAL
PROFESSIONNEL

*ondo pasa
festetean!*

INOA

Kolorazio sistema berria!

Amonikaririk gabe
Usanik gabe
€100 ila zurien astalketa
1100 errespetatzen eta babesten du
Euzko Jurrusalean erosotasuna

Zubiaurrenea, 5B USURBIL 943 361 971

Aguirrezabal Estankoa

*Ondo pasa
Santixabeletan!*

kale Nagusia, 27.

☎ 943 361 110



Urte osoko nekea alboratu eta, Blaust!
eginaz, jauzi zaitez Santixabeletako
jai-olatu paregabera!
Bizi jai giroan Santixabelak!
Besarkada eta muxurik sentikorrenak
bertaratu ezin duzenoi.

Aurrera bolie! Gora Usurbil! Gora Santixabelak!



Usurbil Urtia



USURBIL URTIA

 **Usurbil**
osasuna atez ate